



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Irakurketa ludikoa  
sustatzeko programen  
identifikazioa eta  
analisi **2019**

Siadeco<sup>x</sup>  
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia  
943 31 00 34  
[siadeco@siadeco.eus](mailto:siadeco@siadeco.eus)





## Aurkibidea

Ikerketaren aurkezpena .....	3
Ikerketaren irismena .....	7
Metodologia .....	10
<b>A. Irakurketa ludikoa sustatzeko programen azterketa.....</b>	<b>13</b>
1. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileen azterketa .....	14
2. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen mapa .....	38
3. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen antolaketa .....	115
4. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen ikuspuntu ekonomikoa .....	123
5. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzetan parte hartzea.....	132
6. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen balorazioa.....	134
<b>B. Irakurketa ludikoaren sustapenaren azterketa kualitatiboa .....</b>	<b>144</b>
7. Irakurketa ludikoaren sustapenaren definizioa .....	145
8. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen karakterizazioa .....	156
9. Irakurzaletasuna sustatzeari aitortzen zaion garrantzia .....	164
10. Irakurzaletasuna sustatzearen ardura.....	171
11. Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzen hartzailak.....	177
12. Irakurzaletasunaren bilakaera azken urteetan.....	184
13. Baliabide digitalek sortutako aukerak eta horien ekarpena irakurzaletasunare sustapenean .....	191
14. Irakurzaletasunaren sustapenerako arazo edo oztopo nagusiak.....	197
<b>C. Ondorioak .....</b>	<b>203</b>

# Ikerketaren aurkezpena

## Helburua

Ikerketa honen helburu nagusia EAEko eragile ezberdinek irakurketa ludikoa sustatzeko 2019sn aurrera eraman dituzten programak eta ekintzak identifikatu eta horien analisia egitea da, hau da, programa horien erradiografia zehatz bat egitea. Horretarako, informazioa biltzeko landa-lan bat burutu da eta landa-lan horretan jasotako datuen kalitatea ziurtatu ondoren, lortutako informazioa datu base batean kargatzeko lanak eraman dira aurrera.

Helburu nagusi hori lortzeko, bildutako informazioak honako alderdiak jaso ditu bestek beste:

- Azterlanean parte hartzen duen **eragilearen identifikazio datuak**
- Irakurketa ludikoa sustatzeko **ekintzaren datu zehatzak**
- **Irakurzaletasuna sustatzeari buruzko informazioa**

Ikerketaren kalitatea zein efektibotasuna bermatze aldera, ikerketa hasi aurretik beharrezkoa ikusi da "irakurketa ludikoa sustatzea" kontzeptuaren definizio bat egitea, bere horretan kontzeptua nahiko zabala dela kontsideratzen baita.

## Irakurzaletasunaren sustapenaren kontzeptua

Irakurketa ludikoaren sustapen modura **era askotako testuak modu autonomoan eta helburu desberdinekin irakurtzeko ohitura sustatzea** dela ulertzen da. Sustapen hori hainbat modutara burutu daiteke eta helburu horretarako antolatzen eta aurrera eramaten diren ekintzak oso anitzak dira.

Lana martxan jarri aurretik irakurzaletasuna sustatzeko ekintza, jarduera edo plangintza mota ezberdinen sailkapen edo taldekatze bat egin da, eragileengandik jaso beharreko informazio bilketa lana errazteko. Ondorengoa da ikerketa honetarako egin den irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen multzokatze edo sailkapena:

### **AZOKAK ETA JAIALDIAK**

Irakurketa sustatzea helburu duten jendaurreko ekintzak sartuko lirateke talde honetan: ospakizunak, azokak, jaialdiak, erakusketak, dramatizazioak, etab.

### **SARIKETAK**

Irakurketa/idazketa prozesuak saritzea helburu duten ekintzak: lehiaketak, literatura sariak, etab.

### **AUTOREAK**

Autoreekin egiten diren jendaurreko ekintzak: liburu sinaketak, topaketak, liburu aurkezpenak, solasaldiak, hitzaldiak, etab.

### **LIBURUEN PROMOZIOA**

Liburuen promozioari loturiko ekintzak: liburuen publizitatea, deskontuak, liburuak oparitzea, bookcrossing-a, etab.

### **IRAKURKETA SAIOAK**

Irakurketa klubak, on line irakurketa klubak, irakurraldiak, ipuin-kontalariak, boz gorako irakurketak, liburu-trukaketak, etab.

### **ORIENTAZIOA**

Irakurketaren inguruko orientazioa helburu duten ekintzak: irakurketa gidak, liburu gomendioak, sailkapenak, buletinak, etab.

### **TEKNOLOGIA BERRIAK**

Literatura edo irakurzaletasunari buruzko web orriak, blogak, aplikazioak, baliabide digitalak, katalogoak, nobedadeen alerta zerbitzuak, etab.

### **HEDABIDEAK**

Irrati edo telebista saioak, autoreei elkarrizketak, literatura erreportajeak, literatura kritikak, etab.

### **BISITAK**

Irakurketari loturiko kanpo ekintzak: bisita gidatuak, ibilaldiak, etab.

Hitzen ezagutza eta enuntziatuen ulermen literala baino askoz gehiago da irakurketa. PISA (2010) ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programaren marko teorikoaren arabera, irakurtzeko gaitasunak testu idatziak ulertzea, erabiltzea, horien inguruan hausnartzea eta haiekin konprometitzea ere badakar; norberaren helburuak lortzeko, ezagutza eta potentzial pertsonala garatzeko eta gizartean parte hartzeko bide modura, ere bai.

Horregatik, prozesu konplexua da irakurtzeko ohitura eraikitzea, etengabeko ikasketa eta ahalegina eskatzen dituen. Izan ere, ez da idatzizko sinboloak deskodetzeraz mugatzen. Irakurle izateak hausnarketa, pentsamendua eta analisi kritikoa ere eskatzen ditu (Yubero eta Sánchez-García, 2015). Hortaz, irakurketa-hezkuntzaren helburua irakurleak prestatzea da, baina ez soilik gero eta hobeto irakurtzen jakin dezaten, baizik eta, ahal den neurrian, irakurri nahi izan dezaten, irakurtzeko motibazioa izan dezaten eta ohitura hori beren bizitzan txerta dezaten.

Nabarmentzekoak dira irakurketa ludikoak gazteen artean dakartzan onurak. Nazioarteko ikerketen arabera, harreman zuzena dago irakurmenaren, hiztegia zabaltearen eta irakurtzeko abiaduraren artean. PISA bezalako azterketek ondorioztatzen dute motibazioak eta irakurketa autonomoak berebiziko garrantzia dutela irakurketa-prozesuan, haren maiztasuna estimulatzeko dutelako eta irakurketa-trebetasunei eragiten dietelako.

Alde horretatik, kezka orokorra eragiten duen gaia da irakurzaletasunarena, irakurketa ludikoarena, mundu osoko herrialde eta hizkuntza-komunitateetan. Euskararenean ere bai. Gora egin du, gainera, azken urteetan, irakurmen eta ulermen probetan ikasleek eman ohi dituzten emaitza txarrekin, eta aurrerapen teknologikoen eta testuinguru digital berriak dakartzaten aukera eta mehatxuekin. Heritarren irakurketa-ohiturei buruzko datuek gaur egun inoiz baino gehiago irakurtzen dela adierazten badute ere, PISA bezalako txostenek agerian uzten dituzte biztanleriaren zati handi batek irakurketa-ulermenean arazo handiak dituela. Bestalde, gero eta nabarmenagoa da interneten, sare sozialen, eta oro har, teknologia berrien eragina. Liburuaren industria eta erakunde publikoak jabetzen hasi dira, jada, testuinguru digital horrek irakurzaletasuna sustatzeko eskaintzen dituzten aukerez.

Testuinguru horretan, azken hamarkadan nazioartean egindako ikerketek azpimarratzen dute diziplinarteko lanketa bat behar duela irakurzaletasunaren gaiak, irakurketa-ohitura egonkorak sustatu eta indartu nahi baldin badira, bederen. Irakurzaletasuna sustatzearen helburua irakurketa-ohiturak sortu eta hobetzea da, hain zuzen, horiek egonkortu daitezten eta gizabanakoen bizimoduan integra daitezten. Horretarako, beharrezkoa da irakurketa testuinguru anitzetan eta estrategia ezberdinak erabiliz lantzea. Eskolako testuinguruan, eta eskolako testuingurutik kanpo ere bai.

---

1 PISA (2010). La lectura en PISA 2009. Marcos y pruebas de la evaluación. Ministerio de Educación; Madrid. <http://ir.uv.es/ZI5fpfG> [2020ko otsailak 3].

2 Yubero, S.; Sánchez-García, S. (2015). *Las bibliotecas en la formación del hábito lector*. Universidad de Castilla-La Mancha; Cuenca.

Hirurogeiko hamarkadan jaio ziren irakurzaletasuna sustatzeko praktikak, batez ere hezkuntzaren munduaren eskutik. Denborarekin garatu egin dira, ordea. Eta gaur egun, irakurketaren sustapenak alde aurreko diseinu bat, protokolo bat eta lortutako emaitzen ebaluazio bat ere bane hartu ohi du. Prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa da, hain zuzen ere, ekintzaren funtsezko zatietako bat (Martín-Barbero, 2011).

Gainera, eskolaz aparte, gero eta gehiago dira irakurzaletasuna sustatzeko lanean esku-hartzen duten eragileak. Liburutegien erreferentzialtasuna nabarmendu behar da, zentzu horretan: bai liburutegi publikoena, baita unibertsitate edo eskola-liburutegiena ere. Baina osasun zentroak eta pediatria zerbitzuak ere aipa daitezke, esaterako. Edo komunikabideak. Ahaztu gabe familiaren eragina funtsezkoa dela. Edozein kasutan, oinarriko rola jokatzen dute bitartekariak, irakurketa-sustatzaileak, eremua edozein delarik ere: irakasleak, liburuzainak, senideak...

Izan ere, irakatsi baino gehiago, irakurzaletasuna transmititu egiten da. Eta horregatik, oso garrantzitsua da bitartekarien prestaketa, eta irakurzaletasuna sustatzen diharduten eragileen erantzukizun indibidual eta kolektiboak ulertaraztea, sareak ehunduz eta agenteen arteko elkarlana eta ekintza kooperatiboa ahalbidetuz.

Irakurle gazteenei liburuak eta irakurketa modu erakargarrian hurbiltzean datza, gaur egun, irakurzaletasuna sustatzeko egiten den eskaintzaren parte handi bat. Saiakera horien emaitzen inguruan, ordea, ez dago ondorio argirik, gutxi baitira esku-hartze horien emaitzak aztertzen dituzten ikerketak.

Ez dago irakurketa sustatzeko jarduerak ebaluatzeko eredu edo adierazle espezifikorik. Kasu gehienetan, bertaratutako publikoa hartzen da arrakastaren adierazle nagusitzat, edo erabiltzaileen gogobetetze-maila, bestela. Positibotzat jotzen da, halaber, erabiltzaileek jardura hura errepikatzea eskatu izana edo jardura batek publiko berria erakarri izana. Edonola ere, ebaluazioa ez da modu sistematikoan egiten, batez ere tresna prestatu, estandarizatu eta eraginkorrik ez dagoelako. Horregatik, garrantzitsua da gaiaren inguruko ikerketa-ildoak garatzea, zer egiten den, nola egiten den, zer emaitza ematen duen eta irakurzaletasunaren sustapen eraginkorrago bat lortzeko zer falta daitekeen jakiteko.

---

3 Martín-Barbero, J.; Lluch, G. (2011). *Lectura, escritura y desarrollo en la sociedad de la información*. Certeal y Unesco; Bogotá.

## Ikerketaren irismena

Irakurketa ludikoa sustatzeko EAEko programen identifikazio eta analisirako unibertsoa bi mailatan egituratu da: errolda bidez ikerketaren unibertsoan sartu diren eragileak batetik, eta laginketa bidez sartu direnak, bestetik<sup>4</sup>.

Lana hasi aurretik ikerketan parte hartu duten eragileen sailkapen bat egin da sektore edo jarduera eremuaren arabera. Ondorengoak dira osatu diren multzo nagusiak eta multzo bakoitzaren baitan zehaztu diren azpimultzo edo azpisektoreak:

### LIBURUTEGIAK

Irakurketa ludikoa sustatzen duten EAEko liburutegiak bildu dira sektore honetan:

- EAEko irakurketa publikoko sarea
- Foru liburutegiak
- Goi mailako ikastegietako liburutegiak
- Espezializatutako liburutegiak
- Administrazioaren liburutegiak

### HEZKUNTZA

Hezkuntza sektorearen baitan bereiziko diren kategoriak ondorengoak:

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeak (lagina)
- Unibertsitateak
- Unibertsitatez kanpoko bestelako irakaskuntza (helduen irakaskuntza...)
- Hizkuntza akademiak

---

<sup>4</sup> EAEko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeen kasuan laginketa sistema erabili da.

## FAMILIA

Hezkuntza sistema formaletik kanpo beste sektore batzuk ere ba dauden arren (aisialdia, bestelako kolektiboak...) sektorea familiara mugatuko da, guztiz garrantzizkotzat jotzen baita familiaren eta bereziki gurasoen papera irakurzaletasunaren sustapenean. Familiek haurrengan irakurzaletasuna sustatzeko burutzen dituzten ekintzen kuantifikazioaren zailtasunaz ohartuta, batez ere familiaren kontzeptuaren inguruan EAEn dauden elkarten bitartez egin da lan:

- Familia elkarteak
- Guraso elkarteak

## LIBURUAREN INDUSTRIA

Liburuaren industriaren sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko jarduerak burutzen dituzten eragile pribatuak detektatu dira. Horretarako, bi eragile mota bereizi dira:

- Argitaletxeak
- Liburu-dendak

## HEDABIDEAK

Irakurzaletasunaren sustapenean sektore garrantzitsutzat jotzen da hedabideena. Sektore honetan ondorengo azpisektoreak bereiztu dira:

- Prentsa idatzia (egunkari eta aldizkariak)
- Irratia
- Telebista
- Internet bidezko hedabideak

## ELKARTEAK

Literaturaren, kulturaren eta hizkuntzen alorreko elkarte pribatuek osatuko dute sektore hau. Sektorearen baitan bereizi dira:

- Literaturaren alorreko elkarteak
- Kultur elkarteak
- Euskara elkarteak
- Bestelako elkarteak



## ERAKUNDE PUBLIKOAK

Sektore honen baitan titularitate publikoko ondorengo erakunde motak berezi dira:

- Eusko Jaurlaritzza
- Foru Aldundiak
- Hiriburuetako udalak
- 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako udalak
- Kultura edo euskarari loturiko erakunde publikoak (organismo autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak)

Erakunde horietako bakoitzean irakurketa ludikoa sustatzera bideratutako nolabaiteko plan, jarduera edo ekintzaren bat duten arloak eta departamentuak identifikatu dira; jarduera horiek erakundearen baitan zein egitura edo ataletatik egiten diren edo ez jaso da<sup>5</sup>.

## OSASUN SISTEMA PUBLIKOA

EAEko osasun sistema publikoaren baitan irakurzaletasunaren sustapena, eta bereziki kolektibo jakin batzuegan (haurrengan, esaterako), burutzen duten eragileak bildu nahi izan dira sektore honetan. Eragile horiek EAEko osasun sistema publikoko zentro edo gune nagusienetan daude kokatuta. Ospitaleko Hezkuntza Arretarako Lurralde Zentroetara jo da osasun sisteman irakurzaletasunaren inguruko haurrei zuzenduriko jarduerarik egiten den edo ez atzemateko.

---

<sup>5</sup> Liburutegietatik aurrera eramaten diren plan eta ekintzak Liburutegien sektorean sartu dira.

## Metodologia

Irakurketa ludikoa sustatzeko programen identifikazio eta analisia burutzeko aurrera eraman den metodologiaren ezaugarri nagusiak ondorengoak izan dira:

- Metodologia **planteamendu kuantitatibo hutsak gainditzen saiatzeko premisatik** abiatu da, jasotako erantzunen irakurketan sakontzea ahalbidetuko duten **zeregin kualitatiboak barne hartu ditu** eta garrantzia eman zaie.
- Aplikaturako metodologiak irakurketa sustatzeko **ekintza bakoitzaren azterketa indibidualizatua** bermatu du.
- “Irakurketa ludikoaren sustapena” **kontzeptuaren konprezio bat** egin da. Modu honetara informazio iturri guztiek eman beharreko informazioa modu berdinean ulertzen dutela bermatu da, hau da, estatistikaren homogeneotasuna.
- Azterketa informazio-iturriek irakurzaletasuna sustatzeko 2019an burutu zituzten jarduera eta ekintzetan zentratu da. Hori dela eta, **bi mailatako informazio jaso da**: batetik, irakurzaletasuna sustatzera ekintzak bideratzen dituzten **eragileei buruzko informazioa** (identifikazio datuak, arduradunaren informazioa eta berarekin harremanetan jartzeko datuak...); eta bestetik, erakunde horiek irakurzaletasuna sustatzera bideratu dituzten **ekintza eta jardueren ingurukoa**.
- Informazio hori guztia bere osotasunean bildu, ulertu eta interpretatzeko, **informazio kuantitatiboaz gain informazio kualitatiboa ere jaso da**.
- Informazio bilketarako **galdetegi egituratuak** erabili dira datu bilketarako. Galdetegian bi atal bereiztu dira: irakurketa ludikoaren sustapenari buruzko galdera kualitatiboetan oinarritzen dena bata, eta irakurketa ludikoa sustatzeko erakundeek burutzen dituzten jarduera edo ekintzen inguruko informazioa jasotzera bideratuta dagoena, bestea.
- Landa-lanaren garapena:
  - **Landa lana bi fasetan** ipini da martxan: lehenengo fasea 2020ko ekainean ipini zen martxan eta bertan Hezkuntza sektorea ez beste guztiak sartu dira landa lanean; bigarren fasea 2020ko irailean ipini zen martxan (Hezkuntza sektoreko eragileekin).

- Landa lanaren hasieran Siadeco harremanetan jarri da ikerketaren unibertsoa osatzen duten eragile guztiekin. Lehen kontaktu honen helburua **informazioa emateaz arduratuko zen pertsona identifikatzea eta kontakturako informazioa** eskuratzea izan zen.
  - Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik prestatutako **komunikazio formalaren eta galdetegirako sarbidea eta pasahitzaren bidalketa**. Galdetegia modu telematikoan bete ahal izateko, eragile bakoitzari bere pasahitz propioa eta galdetegia online bete ahal izateko sarbidea bidali zitzaion.
  - **Landa-lanaren garapena**: 2020ko ekainetik abendura arte luzatu da ikerketaren landa lana. Batez besteko eragile bakoitzarekin 3,6 kontaktu izan dira.
  - Hezkuntza sektorean, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeen kasuan lagin bat erabili denez, lagineko eragile titular batek erantzuteari uko egin dion kasuan eragile hori beste batengatik ordeztu da, hasiera batean planteatzen zen laginaren tamaina mantentzeko. Hasiera batean planteatzen zen lagina 450 ikastetxekoa zen. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzaren bat antolatzen duen ikastetxe kopuru hori bermatzeko, guztira 591 ikastetxetara jo behar izan da (442 titular eta 149 ordezko).
- **Landa lana balioztatzea**: landa lana balioztatzeko informazioaren kodetze eta arazte prozesuak burutu dira. Informazioaren balioztatze hau oso garrantzitsua izan da datuen homogeneizazioa bermatzeko.
  - **Informazio kualitatiboaren azterketa**: galdera kualitatiboan bidez jasotako informazio kualitatiboa zein landa lanean zehar eragileengandik jasotako informazio kualitatiboaren azterketa eta egituratze bat burutu da.
  - **Datu kuantitatiboaren ustiapena**: datuen azterketa kuantitatiborako estatistika deskribatzailea erabili da: maiztasun absolutuak, erlatiboak eta aldagaien gurutzaketak.

- Irakurketa ludikoa sustatzeko programan azterketari buruzko txostena: txosten hau **bi atal nagusitan** dago egituratuta:
  - *Irakurketa ludikoa sustatzeko programen azterketa*: atal honetan irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileen azterketa, ekintzen mapa, ekintzen antolaketa, ekintzen ikuspuntu ekonomikoa, ekintzetan parte hartzea eta ekintzen balorazioa aztertuko dira, modu kuantitatiboan neurri handi batean.
  - *Irakurketa ludikoaren sustapenaren azterketa kualitatiboa*: atal honetan modu kualitatiboan landu dira irakurketa ludikoaren sustapenaren definizioa, irakurzaletasuna sustatzeko ekintzen karakterizazioa, irakurzaletasuna sustatzeari aitortzen zaion garrantzia, irakurzaletasuna sustatzearen ardua, irakurzaletasuna sustatzeko ekintzen hartzailak, azken urteetako bilakaera, baliabide digitalek sortutako aukerak eta horien ekarpena irakurzaletasunaren sustapenean eta irakurzaletasunaren sustapenerako arazo edo oztopo nagusiak.



## A. Irakurketa ludikoa sustatzeko programen azterketa

# 1. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileen azterketa

## 1.1. Ikerketako unibertsoa

Irakurketa ludikoa sustatzeko programen edo ekintzen azterketa honetarako eraikitako unibertsoa 1.513 eragilek osatzen dute. Horietatik 923 eragile errola bidez sartu dira unibertsoan eta 590 laginketa bidez (EAEko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilerreko ikastetxeak).

Unibertsoaren sektorekako banaketari dagokionez, Hezkuntza sektorea nagusitzen da eragile kopuruari dagokionean: 671 eragile. Atzetik, Liburutegiaren sektorea (271 eragile) eta Liburuaren industriaren sektorea (214 eragile) daude.

**1. Taula.** Ikerketaren abiapuntuko unibertsoa, sektorearen arabera.

Sektorea	Kopurua	%
Liburutegiak	271	17,9
Hezkuntza	671	44,3
Familia	39	2,6
Liburuaren industria	214	14,1
Hedabideak	160	10,6
Elkarteak	118	7,8
Erakunde publikoak	37	2,4
Osasun Sistema Publikoa	3	0,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>1513</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2020.*

Ikerketako unibertsoa osatzen duten eragileen lurraldekako banaketari dagokionez, beren egoitza nagusia Bizkaian duten eragileak nagusitzen dira: unibertsoan 708 eragilearen egoitza lurralde horretan kokatzen da. Egoitza Gipuzkoan dutenak 542 dira eta Araban dutenak berriz 258 eragile.

**2. Taula.** Ikerketaren abiapuntuko unibertsoa, sektorearen arabera eta lurraldearen arabera.

Sektorea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Liburutegiak	59	21,8	110	40,6	101	37,3	1	0,4	271	100,0
Hezkuntza	117	17,4	326	48,6	228	34,0	0	0,0	671	100,0
Familia	10	25,6	21	53,8	8	20,5	0	0,0	39	100,0
Liburuaren industria	27	12,6	116	54,2	70	32,7	1	0,5	214	100,0
Hedabideak	27	16,9	69	43,1	63	39,4	1	0,6	160	100,0
Elkarteak	13	11,0	43	36,4	60	50,8	2	1,7	118	100,0
Erakunde publikoak	4	10,8	22	59,5	11	29,7	0	0,0	37	100,0
Osasun Sistema Publikoa	1	33,3	1	33,3	1	33,3	0	0,0	3	100,0
	258	17,1	708	46,8	542	35,8	5	0,3	1513	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Sektore eta azpisektoreen arabera unibertsoa osatzen duten eragileak aztertuta, Hezkuntzaren kasuan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilerreko ikastetxeek osatzen dute multzo nagusia (590 eragile, unibertsoren % 39) eta ondoren EAEko liburutegi publikoen sareko liburutegiak daude (235 eragile, unibertsoren % 16).

**3. Taula.** Ikerketaren abiapuntuko unibertsoa, sektorea eta azpisektorearen arabera.

Sektorea	Azpisektorea	Kopurua	% guztia- rekiko	% sektore bakoitzarekiko
Liburutegiak	EAEko liburutegi publikoen sarea	235	15,5	86,7
	Foru liburutegiak	3	0,2	1,1
	Goi mailako ikastegietako liburutegiak	17	1,1	6,3
	Espezializatutako liburutegiak	12	0,8	4,4
	Administrazioaren liburutegiak	4	0,3	1,5
Liburutegiak guztira		271	17,9	100,0
Hezkuntza	Haur/Lehen/Bigarren Hezkuntza eta Batxilera (lagina)	590	39,0	87,9
	Bestelakoak (helduen irakask., atzeritar...)	47	3,1	7,0
	Unibertsitateak	34	2,2	5,1
Hezkuntza guztira		671	44,3	100,0
Familia	Familia elkarteak	9	0,6	23,1
	Guraso elkarteak	30	2,0	76,9
Familia guztira		39	2,6	100,0
Liburuaren industria	Argitaletxeak	70	4,6	32,7
	Liburu-dendak	144	9,5	67,3
Liburuaren industria guztira		214	14,1	100,0
Hedabideak	Prensa idatzia (egunkari eta aldizkariak)	77	5,1	48,1
	Irratia	44	2,9	27,5
	Telebista	36	2,4	22,5
	Internet bidezko hedabideak	3	0,2	1,9
Hedabideak guztira		160	10,6	100,0
Elkarteak	Literaturaren alorreko elkarteak	17	1,1	14,4
	Kultur elkarteak	15	1,0	12,7
	Euskara elkarteak	77	5,1	65,3
	Bestelakoak	9	0,6	7,6
Elkarteak guztira		118	7,8	100,0
Erakunde publikoak	Eusko Jaurlaritza	1	0,1	2,7
	Foru Aldundiak	3	0,2	8,1
	Hiriburuetako udalak	3	0,2	8,1
	Udalak: 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak	19	1,3	51,4
	Kultura edo euskarari loturiko erakunde publikoak	11	0,7	29,7
Erakunde publikoak guztira		37	2,4	100,0
Osasun Sistema Publikoa	Osasun Sistema Publikoa	3	0,2	100,0
Osasun Sistema Publikoa guztira		3	0,2	100,0
<b>GUZTIRA</b>		<b>1513</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: Siadeco, 2020.



## 1.2. Ikerketan parte hartzea

Ikerketa honetan parte hartzearen maila % 64koa izan da: parte hartu duten eragileak guztira 961 izan dira. Parte hartzearen maila hori aldakorra da sektorearen arabera: Hezkuntza sektorean lortu da parte hartze mailarik altuena (% 78); bigarren parte hartze mailarik altuena Liburutegien sektorean (% 77). Kontrara, Hedabideetan eta Elkarreetan parte hartze mailak 10etik 4ren bueltakoak izan dira (% 39 eta % 35, hurrenez hurren).

### 4. Taula. Ikerketan parte hartu duen eragile kopurua eta parte hartze maila (%)

Ikerketaren unibertsoa	Parte hartu duen eragile kopurua	Parte hartze maila (%)
1513	961	63,5

Iturria: Siadeco, 2020.

### 5. Taula. Sektore bakoitzeko parte hartzea maila (%).

Sektoreak	Parte hartu duen eragile kopurua	Parte hartze maila (%)
Liburutegiak	208	76,8
Hezkuntza	524	78,1
Familia	20	51,3
Liburuaren industria	96	44,9
Hedabideak	56	35,0
Elkarreak	46	39,0
Erakunde publikoak	9	24,3
Osasun Sistema Publikoa	2	66,7
Guztira	961	63,5

Iturria: Siadeco, 2020.

Ikerketaren azterketa eremua osatu duten eragileen multzo osoa sektorearen arabera aztertuta, ikus daiteke eragileen erdia baino gehiago Hezkuntza sektorekoak direla (524 eragile, % 55); 208 eragile Liburutegiaren sektorekoak dira (% 22) eta 96 eragile Liburuaren industriaren sektorekoak (% 10).

**6. Taula.** Ikerketan parte hartu duten eragileak sektorearen arabera

Sektoreak	Parte hartu duen eragile kopurua	Parte hartze maila (%)
Liburutegiak	208	21,6
Hezkuntza	524	54,5
Familia	20	2,1
Liburuaren industria	96	10,0
Hedabideak	56	5,8
Elkarteak	46	4,8
Erakunde publikoak	9	0,9
Osasun Sistema Publikoa	2	0,2
<b>Guztira</b>	<b>961</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2020.*

Eragileen lurraldekako banaketa unibertsoaren lurraldekako banaketaren parekoa da: 10etik ia 5 eragilek (458 eragile, % 48) Bizkaian du bere egoitza nagusia; 10etik ia 4k Gipuzkoan (367 eragile, % 38) eta 134 eragilek Araban (% 14).

**7. Taula.** Ikerketan parte hartu duten eragileak sektorearen eta erakunde kokatzen den lurraldearen arabera

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Besterik		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Liburutegiak	29	13,9	91	43,8	88	42,3	-	0,0	-	0,0	208	100,0
Hezkuntza	79	15,1	265	50,6	180	34,4	-	0,0	-	0,0	524	100,0
Familia	4	20,0	9	45,0	6	30,0	-	0,0	1	5,0	20	100,0
Liburuaren industria	9	9,4	58	60,4	29	30,2	-	0,0	-	0,0	96	100,0
Hedabideak	7	12,5	16	28,6	32	57,1	1	1,8	-	0,0	56	100,0
Elkarteak	2	4,4	17	37,0	27	58,7	-	0,0	-	0,0	46	100,0
Erakunde publikoak	3	33,3	2	22,2	4	44,4	-	0,0	-	0,0	9	100,0
Osasun Sistema Publikoa	1	50,0	-	0,0	1	50,0	-	0,0	-	0,0	2	100,0
<b>Guztira</b>	<b>134</b>	<b>13,9</b>	<b>458</b>	<b>47,7</b>	<b>367</b>	<b>38,2</b>	<b>1</b>	<b>0,1</b>	<b>1</b>	<b>0,1</b>	<b>961</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2020.*

Eragileen egoitza nagusia kokatzen den udalerriaren tamainari dagokionez, zehaztu diren udalerri tamainaren arabera multzoen artean eragileen banaketa nahiko orekatua dela esan daiteke:

- 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan dute egoitza nagusia 259 eragilek (% 27)
- 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan dute egoitza nagusia 246 eragilek (% 26)
- 20.000 biztanletik gorako udalerrietan dute egoitza nagusia 181 eragilek (% 19)
- Hiriburuetan dute egoitza nagusia 273 eragilek (% 28).

5.000 biztanletik beherako udalerrietan egoitza duten eragileen pisua nabarmen altuagoa da Liburutegien sektorean (% 50). Familia eta Liburuaren industriaren sektorean egoitza hiriburuetan dutenak nagusitzen dira (eragileen % 70 eta % 49, hurrenez hurren).

**8. Taula.** Ikerketan parte hartu duten eragileak sektorearen eta habitataren arabera.

	< 5.000 biztanle		5.000 – 20.00 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Liburutegiak	104	50,0	61	29,3	17	8,2	26	12,5	-	0,0	208	100,0
Hezkuntza	138	26,3	128	24,4	123	23,5	135	25,8	-	0,0	524	100,0
Familia	2	10,0	3	15,0	1	5,0	14	70,0		0,0	20	100,0
Liburuaren industria	4	4,2	26	27,1	19	19,8	47	49,0	-	0,0	96	100,0
Hedabideak	7	12,5	13	23,2	8	14,3	26	46,4	2	3,6	56	100,0
Elkarteak	4	8,7	12	26,1	10	21,7	20	43,5	-	0,0	46	100,0
Erakunde publikoak	-	0,0	2	22,2	3	33,3	4	44,4	-	0,0	9	100,0
Osasun Sistema Publikoa	-	0,0	1	50,0	-	0,0	1	50,0	-	0,0	2	100,0
<b>Guztira</b>	<b>259</b>	<b>27,0</b>	<b>246</b>	<b>25,6</b>	<b>181</b>	<b>18,8</b>	<b>273</b>	<b>28,4</b>	<b>2</b>	<b>0,2</b>	<b>961</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2020.*

**9. Taula.** Ikerketan parte hartu duten eragileak sektorearen eta azpisektorearen arabera.


Sektoreak eta azpisektoreak		Eragile kopurua	% eragile guztiekiko	% sektoreko eragileekiko
Liburutegiak	EAEko liburutegi publikoen sarea	186	19,3	89,4
	Administrazioaren liburutegiak	4	0,4	1,9
	Espezializatuak	1	0,1	0,5
	Espezializatutako liburutegiak	8	0,8	3,8
	Foru liburutegiak	3	0,3	1,4
	Goi mailako ikastegietako liburutegiak	6	0,6	2,9
Liburutegiak guztira		208	21,6	100,0
Hezkuntza	Haur/Lehen/Bigarren Hezkuntza eta Batxilerra	477	49,6	91,0
	Unibertsitateak	12	1,2	2,3
	Bestelakoak (helduen irakaskuntza, atzeritarra...)	35	3,6	6,7
Hezkuntza guztira		524	54,5	100,0
Familia	Guraso elkarteak	12	1,2	60,0
	Familia elkarteak	8	0,8	40,0
Familia guztira		20	2,1	100,0
Liburuaren industria	Argitaletxeak	26	2,7	27,1
	Liburu-dendak	70	7,3	72,9
Liburuaren industria		96	10,0	100,0
Hedabideak	Prentsa idatzia (egunkari eta aldizkariak)	26	2,7	46,4
	Irratia	10	1,0	17,9
	Telebista	18	1,9	32,1
	Internet bidezko hedabideak	2	0,2	3,6
Hedabideak		56	5,8	100,0
Elkarteak	Literaturaren alorreko elkarteak	7	0,7	15,2
	Euskara elkarteak	28	2,9	60,9
	Kultur elkarteak	5	0,5	10,9
	Bestelakoak	6	0,6	13,0
Elkarteak guztira		46	4,8	100,0
Erakunde publikoak	Eusko Jaurlaritza	1	0,1	11,1
	Foru Aldundiak	2	0,2	22,2
	Hiriburuetako udalak	1	0,1	11,1
	Udalak (20.000 biztanle baino gehiago)	3	0,3	33,3
	Kultura edo euskarari loturiko erakunde publikoak	2	0,2	22,2
Erakunde publikoak		9	0,9	100,0
Osasun Sistema Publikoa	Osasun Sistema Publikoa	2	0,2	100,0
	Osasun Sistema Publikoa guztira	2	0,2	100,0
Guztira		961	100,0	

*Iturria: Siadeco, 2020.*

### 1.3. Irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak: ikuspegi orokorra

2019an irakurketa ludikoa sustatzeko programa edo ekintzaren bat burutu duten galdetuta eragileen % 44k baietz adierazi du (426 eragile). Eragilearen egoitza nagusia kokatzen den lurraldearen arabera irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileen portzentaia zertxobait baxuagoa da Araban (% 40), datu orokorraren parekoa Bizkaian (% 44) eta zertxobait altuagoa Gipuzkoan (% 47). Udalerri tamainaren arabera udalerri txikienetan kokatzen diren eragileen erdiek baino gehiagok burutu dituzte irakurketa sustatzeko ekintzak 2019an (% 52); hiriburuetan da baxuena irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileen ehunekoa (% 36).

**1. grafikoa.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak



Iturria: Siadeco, 2020.

**10. Taula.** Lurralde bakoitzean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak .

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Besterik		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Bai	54	40,3	201	43,9	171	46,6	-	0,0	-	0,0	426	44,3
Ez	80	59,7	256	55,9	195	53,1	1	100,0	1	100,0	532	55,5
Zehaztu gabe	-	0,0	1	0,2	1	0,3	-	0,0	-	0,0	2	0,2
Guztira	134	100,0	458	100,0	367	100,0	1	100,0	1	100,0	961	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.


**11. Taula.** Habitat bakoitzean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak .

	< 5.000 biztanle		5.000 – 20.00 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Bai	135	52,1	112	45,5	82	45,3	97	35,5	-	0,0	426	44,3
Ez	124	47,9	134	54,5	99	54,7	174	63,7	2	100,0	533	55,5
Zehaztu gabe	-	0,0	-	0,0	-	0,0	2	0,7	-	0,0	2	0,2
Guztira	259	100,0	246	100,0	181	100,0	273	100,0	2	100,0	961	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.


Ekintzak burutu dituzten eragileen lurraldeen arabera banaketari dagokionez Bizkaian kokatzen da multzo nagusia (eragileen % 47). Eta udalerri tamainaren arabera 5.000 biztanlez azpiko udaletan (% 32).

**2. grafikoa.** Irakurketa ludiko sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak lurraldearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**3. grafikoa.** Irakurketa ludiko sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak udalerri tamainaren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

#### 1.4. Irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak: sektorekako ikuspegia

Irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak sektorearen ikuspegitik aztertuta, ikus daiteke ekintzak burutzen dituzten eragileen portzentaia oso aldakorra dela sektoretik sektorera. Horrela, Liburutegien sektorean eta Erakunde publikoen sektorean ikerketan parte hartu duten eragileen erdiak baino gehiagok burutu dituzte irakurketa sustatzeko ekintzak 2019an (% 74k eta % 67k, hurrenez hurren).

Parte hartu duten elkarten erdiek adierazi dute irakurketa sustatzeko zerbait egin dutela 2019an zehar (% 50) eta Hezkuntza sektorearen kasuan 10etik 4k antolatu dute zerbait (% 40).

Osasun Sistema Publikoaren baitan kokatzen diren eragileek ez dute ekintzarik antolatu irakurketa ludikoa sustatzeko 2019an.

#### 12. Taula. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak sektorearen arabera

Sektoreak	Bai		Ez		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Liburutegiak	153	73,6	53	25,5	2	1,0	208	100,0
Hezkuntza	211	40,3	313	59,7	0	0,0	524	100,0
Familia	2	10,0	18	90,0	0	0,0	20	100,0
Liburuaren industria	21	21,9	75	78,1	0	0,0	96	100,0
Hedabideak	10	17,9	46	82,1	0	0,0	56	100,0
Elkarteak	23	50,0	23	50,0	0	0,0	46	100,0
Erakunde publikoak	6	66,7	3	33,3	0	0,0	9	100,0
Osasun Sistema Publikoa	0	0,0	2	100,0	0	0,0	2	100,0
Guztira	426	44,3	533	55,4	2	0,3	961	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

Ekintzak burutu dituzten eragileak sektorearen arabera banatuta eragileen gehiengo handi bat bi sektoretan kokatzen da: Hezkuntzan ia erdia (% 50) eta % 36 Liburutegien sektorean. Ondoren, baina kuantitatiboki salto handiarekin, Elkarten sektorea dago (% 5) eta jarraian Liburuaren industria (% 5).

#### 13. Taula. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak sektorearen arabera (% hor).

Sektoreak	Kop	%
Liburutegiak	153	35,9
Hezkuntza	211	49,5
Familia	2	0,5
Liburuaren industria	21	4,9
Hedabideak	10	2,4
Elkarteak	23	5,4
Erakunde publikoak	6	1,4
Guztira	426	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.


Jarraian irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileen ezaugarriak aztertuko dira sektorez sektore.

## Liburutegiak

Ikerketan parte hartu duten Liburutegien sektoreko eragileen ia hiru laurdenak antolatu du ekintzaren bat 2019an irakurketa sustatzeko (153 eragilek, % 73).


Eragile horiek beren kokapenaren arabera aztertuta, ikus daiteke Gipuzkoan eta Bizkaian kokatzen direla batez ere (% 43ko ehunekoarekin bakoitza), eta udalerrri tamainari dagokionean berriz, erdia baino gehiago dira udalerrri txikienetan kokatuak (eragileen % 52 5.000 biztanletik beherako udaletan daude).

**4. grafikoa.** Liburutegien sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**5. grafikoa.** Liburutegien sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)



**6. grafikoa.** Liburutegien sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2020.



Liburutegien sektorearen baitan azpisektoreari erreparatzen badiogu, ikus daiteke gehiengoa EAEko liburutegi publikoen sareko liburutegiak direla (% 96). Era berean, azpisektore honetan da ekintzak burutzen dituzten eragileen portzentaia altuena (% 79).

**7. grafikoa.** Liburutegien sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**14. Taula.** Liburutegien sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera

	Bai		Ez		Zehaztu gabe		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
EAEko liburutegi publikoen sarea	147	79,0	38	20,4	1	0,5	186	100,0
Foru liburutegiak	2	66,7	-	0,0	1	33,3	3	100,0
Goi mailako ikastegietako liburutegiak	1	16,7	5	83,3	-	0,0	6	100,0
Espezializatutako liburutegiak	3	33,3	6	66,6	-	0,0	9	100,0
Administrazioaren liburutegiak	-	0,0	4	100,0	-	0,0	4	100,0
<b>Guztira</b>	<b>153</b>	<b>73,6</b>	<b>53</b>	<b>25,5</b>	<b>2</b>	<b>1,0</b>	<b>208</b>	<b>100,0</b>


Iturria: Siadeco, 2020.

## Hezkuntza

Hezkuntzaren sektorean ikerketan parte hartu duten eragileen % 40k antolatu du irakurketa sustatzeko ekintzaren bat 2019an (211 eragilek, % 40).


Eragile horiek beren kokapenaren arabera aztertuta, ikus daiteke Bizkaian kokatzen diren eragileak nagusitzen direla (% 54), eta udalerri tamainari dagokionean berriz udalerri tamainaren arabera oso orekatua da habitat ezberdinen artean (% 23 eta % 27 artean).

**8. grafikoa.** Hezkuntza sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**9. grafikoa.** Hezkuntza sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)




**10. grafikoa.** Hezkuntza sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

Hezkuntza sektorearen baitan azpisektoreari erreparatzen badiogu, ikus daiteke ekintzaren bat antolatu duen gehiengoa Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilerrako zentroak direla (% 92). Hala ere, esan beharra dago Bestelako irakaskuntza eskaintzen duten zentroetan (helduena, atzeritarrena...), ekintzak burutzen dituzten eragileen ehunekoa altuagoa dela (% 49 bestelakoetan eta % 41 Haur, Lehen, Bigarren Hezkuntza eta Batxilerrako zentroetan).

**11. grafikoa.** Hezkuntza sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**15. Taula.** Hezkuntza sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera


	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Haur/Lehen/Bigarren Hezkuntza eta Batxilerra	193	40,5	284	59,5	477	100,0
Unibertsitateak	1	8,3	11	91,7	12	100,0
Bestelakoak (helduen irakaskuntza, atzeritarra...)	17	48,6	18	51,4	35	100,0
<b>Guztira</b>	<b>211</b>	<b>40,3</b>	<b>313</b>	<b>59,7</b>	<b>524</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.

Familia


Ikerketa honetan parte hartu duten elkarten kasuan, 10etik batek soilik adierazi du 2019an irakurketa antolatzeke ekintzaren bat antolatu duela (2 guraso elkartek, % 10).

**12. grafikoa.** Familia sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**13. grafikoa.** Familia sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)




**14. grafikoa.** Familia sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**15. grafikoa.** Familia sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**16. Taula.** Familia sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera


	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Familia elkarteak	-	0,0	8	100,0	8	100,0
Guraso elkarteak	2	16,7	10	83,3	12	100,0
Guztira	2	10,0	18	90,0	20	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

## Liburuaren industria


Liburuaren industrian 21 eragilek adierazi dute irakurketa sustatzeko ekintzaren bat antolatu duela 2019an (% 22). Eragile horien egoitza nagusiaren kokapenari dagokionez, gehienak Bizkaian (% 62) eta hiriburuetan (% 57) kokatzen dira.

**16. grafikoa.** Liburuaren industriaren sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**17. grafikoa.** Liburuaren industriaren sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2020.

**18. grafikoa.** Liburuaren industriaren sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)



Liburuaren industriako eragileen izaera aztertuta, ekintzaren bat burutzen dutenen hiru laurdena baino gehixeago liburu-dendak dira (% 76), eta gainontzekoak argitaletxeak (%24). Liburu-dendetan ekintzaren bat antolatu dutenak ez dira ikerketan parte hartu duten liburu-denda guztien laurdenera iristen (% 23); are baxuagoa da ehuneko hori argitaletxeen kasuan (% 19).

**19. grafikoa.** Liburuaren industriaren sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



*Iturria: Siadeco, 2020.*

**17. Taula.** Liburuaren industriaren sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera


	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Argitaletxeak	5	19,2%	21	80,8%	26	100,0
Liburu-dendak	16	22,9%	54	77,1%	70	100,0
Guztira	21	21,9%	75	78,1%	96	100,0

*Iturria: Siadeco, 2020.*

## Hedabideak


Hedabideen sektorean 2019an irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzaren bat antolatu dutela adierazi dutenak % 18 izan dira (10 eragile). Nagusiki Gipuzkoan kokatzen dira hedabide horiek (% 70) eta bereziki hiriburuetan (% 60).

**20. grafikoa.** Hedabideen sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**21. grafikoa.** Hedabideen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)



**22. grafikoa.** Hedabideen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2020.



Hedabide mota edo azpisektoreari erreparatuta, 10etik 4 hedabide prentsa idatzikoak dira, 3 telebista kate eta 3 irrati kate.

2019an irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten hedabideen ehunekoari dagokionez, irratan beste bietan baino altuagoa da (% 30 irratan, % 17 telebistan eta % 15 prentsa idatzian).

**23. grafikoa.** Hedabideen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**18. Taula.** Hedabideen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera


	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Internet bidezko hedabideak	-	0,0	2	100,0	2	100,0
Irratia	3	30,0	7	70,0	10	100,0
Prentsa idatzia (egunkari eta aldizkariak)	4	15,4	22	84,6	26	100,0
Telebista	3	16,7	15	83,3	18	100,0
Guztira	10	17,9	46	82,1	56	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

## Elkartek


Ikerketan parte hartu duten 46 elkartetatik, erdiek adierazi dute irakurketa sustatzeko ekintzaren bat burutu izana (% 50). Ekintzak burutzen dituzten horien artean Gipuzkoako elkarteak dira ugarien (% 65). Udalerri tamainari dagokionez hiriburuetakook nagusitzen dira (% 44).

**24. grafikoa.** Elkarteen sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




Iturria: Siadeco, 2020.

**25. grafikoa.** Elkarteen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)



**26. grafikoa.** Elkarteen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)




Iturria: Siadeco, 2020.

Elkarte horiek ze elkarre mota diren aztertuta, ikus daiteke euskara elkarteak nagusitzen direla beraien artean (% 63); literaturaren alorreko elkarteak daude ondoren (% 22); bestelako elkarteak gero (% 9) eta kultur elkarteak azkenik (% 4).

Hala ere, azpimarratu beharra dago literaturaren alorreko elkarteetan dela altuena irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituztenen ehunekoa (% 71).

**27. grafikoa.** Elkarreen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**19. Taula.** Elkarreen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera


	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Euskara elkarteak	15	53,6	13	46,4	28	100,0
Kultur elkarteak	1	20,0	4	80,0	5	100,0
Literaturaren alorreko elkarteak	5	71,4	2	28,6	7	100,0
Bestelakoak	2	33,3	4	66,7	6	100,0
Guztira	23	50,0	23	50,0	46	100,0

Iturria: Siadeco, 2020.

## Erakunde publikoak


Erakunde publikoen kasuan hirutik bi erakundek antolatu du ekintzaren bat irakurketa ludikoa sustatzeko (% 67). Horien erdiak Gipuzkoan kokatzen dira (% 50); eta erdi bat da hiriburuetan kokatzen dena ere (%50).

**28. grafikoa.** Erakunde publikoen sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak




*Iturria: Siadeco, 2020.*

**29. grafikoa.** Erakunde publikoen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, lurraldearen arabera (%)




**30. grafikoa.** Erakunde publikoen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, habitataren arabera (%)



*Iturria: Siadeco, 2020.*

**31. grafikoa.** Erakunde publikoen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak, azpisektorearen arabera (%)



Iturria: Siadeco, 2020.

**20. Taula.** Erakunde publikoen sektorean irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten erakundeak, azpisektorearen arabera

	Bai		Ez		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Eusko Jaurlaritza	1	100,0	-	0,0	1	100,0
Foru Aldundiak	1	50,0	1	50,0	2	100,0
Hiriburuetako udalak	1	100,0	-	0,0	1	100,0
Kultura edo euskarari loturiko erakunde publikoak	1	50,0	1	50,0	2	100,0
Udalak: 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak	2	66,7	1	33,3	3	100,0
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>66,7</b>	<b>3</b>	<b>33,3</b>	<b>9</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.

## 2. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen mapa

Txostenaren atal honetan 2019an EAEko eragile ezberdinek irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu dituzten ekintzak aztertuko dira. Orain arte txostenean zehar ekintza horien antolatzaile diren eragileez aritu bagara ere, hemendik aurrera txostenean azterketa unitatea ekintza bera izango da, eta ematen diren datu guztiak ekintzenak dira, ez horien antolatzaile diren eragileenak.

### 2.1. Irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu diren ekintzak

Aurreko atalean ikusi da 426 eragile izan direla EAEn 2019an irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzaren bat antolatu duten eragileak. Hain zuzen ere, azterketa honetan eragile horiek antolatu dituzten 1.436 ekintzari buruzko informazioa jaso da. Beraz, batez beste eragile bakoitzak 3,4 ekintzari buruzko informazioa eman du.


#### 21. Taula. Irakurketa ludikoa sustatzeko antolatutako ekintza kopurua (guztira eta batezbestekoa)

Ekintzaren bat antolatu duen eragile kopurua	Antolatu den ekintza kopurua	Batezbestekoa (ekintza/eragile)
426	1436	3,4

Iturria: Siadeco, 2020.

1.436 ekintza horiek EAEko hiru lurraldeen arabera aztertuta, ikus daiteke Bizkaian antolatzen diren ekintzak direla nagusi (ekintzen % 47 antolatu dira lurralde horretan). Jarraian Gipuzkoan antolatutako ekintzak dira nagusi (% 42); eta askoz baxuagoa da Araban antolatuta ekintzen ehunekoa (% 11). Eragile bakoitzak antolatuta batez besteko ekintza kopuruari dagokionez, Gipuzkoan antolatutako batez besteko ekintza kopurua besteetakoa baino zertxobait altuagoa da: 3,5 ekintza eragileko Gipuzkoan, 3,4 Bizkaian eta 3 Araban.

**32. grafikoa.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintza kopurua, lurraldearen arabera (kopurua eta batezbestekoa)



Iturria: Siadeco, 2020.

**22. Taula.** Ekintza kopurua, lurraldearen arabera.


Lurraldea	Antolatutako ekintza kopurua	%	Batezbestekoa (ekintza/eragile)
Araba	160	11,1	3,0
Bizkaia	674	46,9	3,4
Gipuzkoa	602	41,9	3,5
Guztira	1436	100,0	3,4

Iturria: Siadeco, 2020.

Udalerri tamainaren arabera 10etik 6 ekintza 20.000 biztanletik beherako udalerrietan antolatu dira (% 31, 5.000 eta 20.000 biztanle artekoetan, eta % 30, 5.000 biztanletik beherakoetan). Hiriburuetan ekintza guztien % 20 antolatu dira eta 20 biztanletik gorakoetan % 19.

Batez beste tamaina ezberdineko udalerrietan antolatutako ekintza kopuruari dagokionez, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udaletan antolatu da eragile bakoitzeko ekintza gehien: batez beste 3,9 ekintza.

**33. grafikoa.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintza kopurua, udalerriaren tamainaren arabera (kopurua eta batezbestekoa)



Iturria: Siadeco, 2020.

**23. Taula.** Ekintza kopurua, udalerraren tamainaren arabera


Lurraldea	Antolatutako ekintza kopurua	%	Batezbestekoa (ekintza/eragile)
< 5.000 biztanle	435	30,3	3,2
5.000 - 20.000 biztanle	441	30,7	3,9
> 20.000 biztanle	267	18,6	3,3
Hiriburuak	293	20,4	3,0
Guztira	1436	100,0	3,4

Iturria: Siadeco, 2020.

Ekintzak antolatu dituzten eragileak multzokatu diren sektoreari jarraiki, Liburutegien sektoreko eragileek antolatu dituzte ekintzen erdia baino gehiago (747 ekintza antolatu dira liburutegietan; ekintza guztien % 52). Atzetik Hezkuntza sektorea dago 548 ekintzarekin (ekintza guztien % 38).

Sektore bakoitzean batez beste antolatutako ekintzei dagokienean, kasu honetan ere Liburutegien sektorea nagusitzen da, batez beste 4,9 ekintza eragile bakoitzeko batezbestekoarekin. Beste sektore guztietan balio hori batezbestekoaren azpitik kokatzen da: 1,5 eta 2,7 ekintza artean.

**34. grafikoa.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintza kopurua, sektorearen arabera (kopurua eta batezbestekoa)



Iturria: Siadeco, 2020.



**24. Taula.** Ekintza kopurua, udalerraren sektorearen arabera

Sektorea	Antolatutako ekintza kopurua	%	Batezbestekoa (ekintza/eragile)
Liburutegiak	747	52,0	4,9
Hezkuntza	548	38,2	2,6
Familia	3	0,2	1,5
Liburuaren industria	55	3,8	2,6
Hedabideak	15	1,0	1,5
Elkarteak	52	3,6	2,3
Erakunde publikoak	16	1,1	2,7
Guztira	1436	100,0	3,4

*Iturria: Siadeco, 2020.*

## 2.2. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen karakterizazioa: ikuspegi orokorra

Aurreko atalean aipatu bezala ikerketan irakurketa ludikoa sustatzeko 2019an antolatutako 1.436 ekintzari buruzko informazio jaso da. Atal honetan modu orokorrean ekintza horien karakterizazio bat egingo da, zehazki ondorengo ezaugarriak aztertuko direlarik:

- Irakurketa sustatzeko ze ekintza mota antolatu diren.
- Irakurketa sustatzeko ekintzen xede taldea adinaren arabera: hemen ekintzak adin talde zehatz bati zuzenduta dauden edo ez aztertuko da.
- Irakurketa sustatzeko ekintzak publiko espezifiko bati zuzenduta dauden edo ez aztertuko da.
- Irakurketa sustatzeko ekintzak baztertze egoeran dagoen kolektibo bati zuzenduta dauden edo ez aztertuko da.

### **Irakurketa sustatzeko antolatu diren ekintza motak<sup>6</sup>**


Ikerketan sartu diren 1.436 ekintzen erdia baino gehiago Irakurketa saio modura sailkatu da (733 ekintza). Ekintza mota honen nagusitasuna oso nabaria da; izan ere bigarren gehien antolatutako ekintza motara dagoen saltoa handia da: Autoreen atalean sailkatuta ekintzak izan dira bigarren ugarien 218 ekintzarekin (% 15). Liburutegien sektorean eta Hezkuntzaren sektorean gehien antolatu den ekintza mota da Irakurketa saioena, eta bi sektore horietako eragile kopuru eta ondorioz ekintza kopuru altuak, ekintza mota hori oso ugaria izatea eragiten du.

Hirugarren tokian Orientazio ekintza modura sailkatutakoak daude (% 11) eta jarraian Azokak eta jaialdiak (% 10). Liburuen promozioa, Sariketak eta Bisitak % 8 eta % 9 artean kokatzen dira; eta azkenik Teknologia berrietan eta Hedabideetan sailkatutako ekintzak daude (% 6 eta % 2, hurrenez hurren).

---

<sup>6</sup> Ekintza bera ekintza mota bat baino gehiagotan sailkatua izan zitekeen informazio bilketarako erabilitako fitxan.

**35. grafikoa.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen sailkapena, ekintza motaren arabera.



Iturria: Siadeco, 2020.

**25. Taula.** Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen sailkapena, ekintza motaren arabera


Ekintza mota	Ekintza kopurua	Ekintza guztiekiko % (1436 ekintzarekiko)
Azokak eta jaialdiak	146	10,2
Sariketak	124	8,6
Autoreak	218	15,2
Liburuen promozioa	129	9,0
Irakurketa saiok	733	51,0
Orientazioa	155	10,8
Teknologia berriak	84	5,8
Hedabideak	30	2,1
Bisitak	113	7,9

Iturria: Siadeco, 2020.

### Irakurketa sustatzeko ekintzaren xede taldea, adin tartearen arabera

Irakurketa sustatzeko informazio jaso den 1.436 ekintzatik 843 ekintzatan adierazi dute ekintza hori adin zehatz bati zuzendua dagoela (ekintzen % 59). 414 ekintzatan (% 29) ekintza ez dago adin zehatz bati zuzendua, hau da, publiko orokorarentzat da, eta 179 ekintzatan ez da horren inguruko informaziorik jaso (% 13).

**36. grafikoa.** Ekintza adin zehatz bati zuzendua dago?



Iturria: Siadeco, 2020.

Ekintzak sektoreka aztertuta, joera ondorengoa da sektore batetik bestera:

- Familia sektorearen kasuan sektore honetako eragileek antolatu dituzten 3 ekintzak adin zehatz bati zuzenduta daude (% 100): 16 urtetik beherako haurrei zuzendutako ekintzak antolatzen dira sektore horretan.
- Hezkuntza sektorean ia 10etik 7 dira adin tarte zehatz bati zuzendutako ekintzak (% 68), eta ekintza horien % 63 Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude (6 eta 11 urte arteko haurrei zuzendutako 234 ekintzari buruzko informazioa bildu da).
- Liburutegien sektorean adin zehatz bati zuzendutako ekintzak 432 dira (sektoreko ekintzen % 58). Hezkuntzako kasuan bezala hemen ere Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude ekintzen zati handi bat (275 ekintza, % 64). Ia ekintza erdiak Haur Hezkuntzako bigarren ziklora zuzentzen dira (210 ekintza, % 49). Helduei zuzendutako ekintzei dagokienean, adin-tarte ezberdinetara zuzendutako ekintzen ehunekoa % 20aren bueltan kokatzen da kasu guztietan.
- Hedabideetan adin zehatz bati zuzendutako ekintzen pisua % 47 da; eta kasu honetan ere batez ere ikasleak dira ekintza horien xede taldea (11 urtetik beherakoak zehazki).

- Elkarteen kasuan 10 ekintzatatik 4 daude adin zehatz bati zuzenduta (% 39) eta Erakunde Publikoen kasuan ia 10etik 2 (% 19). Bi sektore horietan ekintza zuzendua dagoen adin taldearen banaketa beste sektoreetan baino orekatuagoa dela ikusten da.
- Azkenik, Liburuaren industrian 10etik ia ekintza bat dago adin zehatz bati zuzendua (% 9). Eta kasu honetan ere ikasleen taldea da xede talde nagusia.

Ekintza guztiak bere osotasunean hartuta ikus daiteke Lehen Hezkuntza dela adin zehatz bati zuzenduta dauden ekintzen xede talde nagusia, hau da, 6 eta 11 urte bitarteko ikasleak (EAEn talde horri zuzenduta dauden 533 ekintzari buruzko informazioa jaso da; adin zehatz bati zuzenduta dauden ekintzen % 63).

352 ekintza Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei zuzenduta daude (adin zehatz bati zuzenduta dauden ekintzen % 42). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekintzak 203 dira (% 24) eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko haurrei zuzendutakoak 84 dira (% 10).

16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako ekintzen ehunekoa % 11 eta % 13 artean kokatzen da (hau da, 100 bat ekintzaren bueltan adin-tarte bakoitzean).

**26. Taula.** Ekintza adin zehatz bati zuzendua dagoen ala ez, sektorearen arabera.

Sektorea	Bai	%	Ez	%	Zehaztu gabe	%	Guztira	%
Liburutegiak	432	57,8	238	31,9	77	10,3	747	100,0
Hezkuntza	373	68,1	107	19,5	68	12,4	548	100,0
Familia	3	100,0	0	0,0	0	0,0	3	100,0
Liburuaren industria	5	9,1	38	69,1	12	21,8	55	100,0
Hedabideak	7	46,7	4	26,7	4	26,7	15	100,0
Elkarreak	20	38,5	19	36,5	13	25,0	52	100,0
Erakunde publikoak	3	18,8	8	50,0	5	31,3	16	100,0
<b>Guztira</b>	<b>843</b>	<b>58,7</b>	<b>414</b>	<b>28,8</b>	<b>179</b>	<b>12,5</b>	<b>1436</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Siadeco, 2020.*

**27. Taula.** Adin zehatz bati zuzenduak dauden ekintzak, adin-tartearen arabera.


		0 - 2 HH - lehen zikloa	3 - 5 HH - bigarren zikloa	6 - 11 LH	12 - 16 DBH	17 - 18 Batxil./ Erdi- mailako LH	19 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 - 64 urte	65 urtetik gora
Liburutegiak	Kop	45	210	275	61	61	79	84	83	84	87	87
	%	10,4	48,6	63,7	14,1	14,1	18,3	19,4	19,2	19,4	20,1	20,1
Hezkuntza	Kop	30	126	234	127	35	6	7	7	7	7	5
	%	8,0	33,8	62,7	34,0	9,4	1,6	1,9	1,9	1,9	1,9	1,3
Familia	Kop	1	2	2	1	0	0	0	0	0	0	0
	%	33,3	66,7	66,7	33,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Liburuaren industria	Kop	1	3	4	2	1	0	0	0	0	0	0
	%	20,0	60,0	80,0	40,0	20,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Hedabideak	Kop	6	6	7	1	0	0	0	0	0	0	0
	%	85,7	85,7	100,0	14,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Elkarteak	Kop	1	4	8	10	7	5	5	5	5	5	5
	%	5,0	20,0	40,0	50,0	35,0	25,0	25,0	25,0	25,0	25,0	25,0
Erakunde publikoak	Kop	0	1	3	1	1	1	1	1	1	1	1
	%	0,0	33,3	100,0	33,3	33,3	33,3	33,3	33,3	33,3	33,3	33,3
Guztira	Kop	84	352	533	203	105	91	97	96	97	100	98
	%	10,0	41,8	63,2	24,1	12,5	10,8	11,5	11,4	11,5	11,9	11,6

Iturria: Siadeco, 2020.

### Irakurketa sustatzeko ekintzaren xede taldea, publiko espezifikoaren arabera

Ekintzaren ezaugarriez galdetzean, ekintza publiko espezifiko bati zuzendua dagoen edo ez ere galdetu zaie eragileei. Ekintza ezberdinen inguruan jasotako informazioa aztertuta ekintzen % 60an adierazi da ekintza hori publiko espezifiko bati zuzendua dagoela (677 ekintza). Ezezkoa adierazi da ekintzen % 29an (488 ekintza) eta horren inguruko informaziorik ez da zehaztu ekintzen % 13an (271 ekintza).

**37. grafikoa.** Ekintza publiko espezifiko bati zuzendua dago?



Iturria: Siadeco, 2020.

**28. Taula.** Ekintza publiko espezifiko bati zuzendua dagoen ala ez, sektorearen arabera.

Sektorea	Bai	%	Ez	%	Zehaztu gabe	%	Guztira	%
Liburutegiak	286	38,3	336	45,0	125	16,7	747	100,0
Hezkuntza	354	64,6	88	16,1	106	19,3	548	100,0
Familia	3	100,0	0	0,0	0	0,0	3	100,0
Liburuaren industria	4	7,3	39	70,9	12	21,8	55	100,0
Hedabideak	0	0,0	6	40,0	9	60,0	15	100,0
Elkarteak	27	51,9	12	23,1	13	25,0	52	100,0
Erakunde publikoak	3	18,8	7	43,8	6	37,5	16	100,0
<b>Guztira</b>	<b>677</b>	<b>47,1</b>	<b>488</b>	<b>34,0</b>	<b>271</b>	<b>18,9</b>	<b>1436</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.

Ekintza zein publiko espezifikori zuzendua dagoen modu irekian galdetu denez jasotako erantzunen sailkatze bat egin da horien azterketa errazte aldera. Sortutako publiko espezifikoen sailkapena ondorengoa da:

- Eskola komunitatea: ikasleen eta irakasleen arteko bereizketa eginez
- Familia
- Haurrak: 12 urte arteko haurrak
- Gazteak: 12 eta 16 urte bitartekoak
- Gazteak: 16 urtetik gorakoak
- Helduak
- Adinekoak
- Atzerritarrak
- Emakumeak
- Aisialdia
- Osasun-zentroak
- Aniztasun funtzionala duten pertsonak
- Herriko edo auzoko multzo talde jakin bat
- Euskal irakurleak
- Udal liburutegia
- Irakurtzeko ohiturarik ez duten eta irakurketara hurbildu nahi diren herritarrak



Guztira 662 ekintzatan adierazi da ekintza zein publiko espezifikori zuzendua dagoen (ekintza publiko espezifikoki bati zuzendua dagoela adierazi duten ekintzen % 98).


Kasu honetan ere asko nabarmendu dira ikasleei zuzenduta daudela adierazi den ekintza kopurua (ekintzen % 69 publiko horri zuzendua dago, 454 ekintza). Espero zen modura bereziki Hezkuntza sektorean da ekintza publiko espezifikoki horretara zuzendua dagoela adierazi den ekintzen pisua altua (ekintzen % 92).

Ekintzen % 22 familiei zuzendua dago: Liburutegien sektorean familiei zuzenduak dauden ekintzen pisua altuagoa da (% 42, 116 ekintza).

Ekintzen % 10 haurrei zuzenduta daude (eskola jardueraz kanpo), eta ehuneko hori batezbestekoa baino altuagoa da ere Liburutegien sektorean (% 23, 63 ekintza).

Liburutegien sektoreko ekintzak dira publiko espezifikoki ezberdin gehien dituztenak.

**38. grafikoa.** Irakurketa sustatzeko ekintza zein publiko espezifikoki zuzendua dagoen (%).



Iturria: Siadeco, 2020.

**29. Taula.** Irakurketa sustatzeko ekintza zein publiko espezifikori zuzendua dagoen, sektorearen arabera.

	Liburutegiak		Hezkuntza		Familia		Liburuaren industria		Elkartek		Erakunde publikoak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Eskola komunitatea: ikasleak	109	39,4	319	91,7	3	100,0	3	75,0	18	66,7	2	66,7	454	68,6
Eskola komunitatea: irakasleak	15	5,4	18	5,2	0	0,0	0	0,0	2	7,4	0	0,0	35	5,3
Familia	116	41,9	27	7,8	0	0,0	0	0,0	1	3,7	0	0,0	144	21,8
Haurrak	63	22,7	6	1,7	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	69	10,4
Gaztetxoak (12-16 urte)	8	2,9	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	9	1,4
Gazteak (>16 urte)	10	3,6	1	0,3	0	0,0	1	25,0	1	3,7	0	0,0	13	2,0
Helduak	24	8,7	0	0,0	0	0,0	0	0,0	3	11,1	1	33,3	28	4,2
Adinekoak	4	1,4	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	5	0,8
Atzeritarrak	1	0,4	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,2
Emakumeak	7	2,5	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	8	1,2
Aisialdirako programak	13	4,7	4	1,1	0	0,0	0	0,0	1	3,7	0	0,0	18	2,7
Osasun-zentroko erabiltzaileak	4	1,4	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	4	0,6
Aniztasun funtzionala	6	2,2	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	6	0,9
Herritarrak edo auzokoak	10	3,6	1	0,3	0	0,0	0	0,0	1	3,7	0	0,0	12	1,8
Euskal irakurleak	4	1,4	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	5	0,8
Udal liburutegia	0	0,0	2	0,6	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	2	0,3
Irakurtzeko ohiturarik ez dutenak	1	0,4	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,2
<b>Guztira</b>	<b>277</b>	<b>100,0</b>	<b>348</b>	<b>100,0</b>	<b>3</b>	<b>100,0</b>	<b>4</b>	<b>100,0</b>	<b>27</b>	<b>100,0</b>	<b>3</b>	<b>100,0</b>	<b>662</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.


### Irakurketa sustatzeko ekintzaren xede taldea, baztertze arriskuan dagoen taldearen arabera

Ekintzen xede taldeekin amaitzeko, azkenik ekintza baztertze arriskuan dagoen talde berezi bati zuzendua dagoen ala ez ere jaso da.

Ekintzen inguruan jasotako informazioaren arabera, oso gutxi dira talde berezi bati zuzenduak dauden ekintzak: 47 ekintzatan bakarrik adierazi da ekintza talde berezi bati zuzendua dagoela (% 3). 10etik 7 ekintzatan ekintza ez dagoela talde berezi bati zuzendua adierazi da (% 71) eta ez da galdera honen inguruko erantzunik eman gainontzeko ekintzetan (% 25).

47 ekintza horietatik 30 Liburutegien sektorekoak dira (% 64) eta 14 Hezkuntza sektorekoak (% 30).

#### 39. grafikoa. Ekintza baztertze arriskuan dagoen talde berezi bati zuzendua dago?



Iturria: Siadeco, 2020.

#### 30. Taula. Ekintza baztertze arriskuan dagoen talde berezi bati zuzendua dagoen ala ez, sektorearen arabera.

Sektorea	Bai	%	Ez	%	Zehaztu gabe	%	Guztira	%
Liburutegiak	30	4,0	542	72,6	175	23,4	747	100,0
Hezkuntza	14	2,6	403	73,5	131	23,9	548	100,0
Familia	0	0,0	1	33,3	2	66,7	3	100,0
Liburuaren industria	1	1,8	41	74,5	13	23,6	55	100,0
Hedabideak	0	0,0	6	40,0	9	60,0	15	100,0
Elkarteak	1	1,9	23	44,2	28	53,8	52	100,0
Erakunde publikoak	1	6,3	8	50,0	7	43,8	16	100,0
<b>Guztira</b>	<b>47</b>	<b>3,3</b>	<b>1024</b>	<b>71,3</b>	<b>365</b>	<b>25,4</b>	<b>1436</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.


Kasu honetan ere ekintza zein talde bereziri zuzendua dagoen modu irekian galdetu da, eta jasotako erantzunak sailkatu egin dira, ondorengo kategoriak sortuz:

- Etorkinak
- Aniztasun funtzionala duten pertsonak
- Emakumeak
- Osasun mentaleko gaixoak
- Adineko pertsonak
- Irakurketa Erraza
- LGTBIQ kolektiboa
- Besterik

47 ekintza horietatik 46tan zehaztu da zein den talde berezi hori. Horietatik etorkinei zuzendutako ekintzek osatzen dute gehiengoa (% 10); aniztasun funtzionala duten pertsoneri zuzendutakoak % 9 dira, eta % 8 emakumeei zuzendutako ekintzak.

Kasu honetan ere Liburutegiaren sektorea da talde berezi ezberdin kopuru altuena duen sektorea.

**40. grafikoa.** Ekintza baztertze arriskuan dagoen zein talde bereziri zuzendua dagoen.



Iturria: Siadeco, 2020.

**31. Taula.** Ekintza baztertze arriskuan dagoen zein talde bereziri zuzendua dagoen, sektorearen arabera.

	Liburutegiak		Hezkuntza		Liburuaren industria		Elkartek		Erakunde publikoak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
Adineko pertsonak	2	6,7	2	13,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	4	8,7
Aniztasun funtzionala duten pertsonak	7	23,3	2	13,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	9	19,6
Emakumeak	2	6,7	6	40,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	8	17,4
Etorkinak	8	26,7	0	0,0	1	100,0	1	100,0	0	0,0	10	21,7
Osasun mentaleko gaixoak	6	20,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	6	13,0
Irakurketa Erraza	1	3,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	100,0	2	4,3
LGTBIQ kolektiboa	1	3,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	2,2
Besterik	3	10,0	5	33,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	8	17,3
<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>100,0</b>	<b>15</b>	<b>100,0</b>	<b>1</b>	<b>100,0</b>	<b>1</b>	<b>100,0</b>	<b>1</b>	<b>100,0</b>	<b>46</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Siadeco, 2020.

### 2.3. Irakurketa sustatzeko ekintzen karakterizazioa: sektorekako ikuspegia

Sektore bakoitzean antolatzen diren ekintza motak modu sakonagoan ezagutu asmoz, atal honetan irakurketa sustatzeko ekintzen sektorekako azterketa egingo da. Sektore bakoitzaren baitan ekintzen azpisektorekako banaketaz arituko gara lehendabizi; lurralde eta udalerrri tamainaren arabera azterketa egingo da ondoren, eta irakurketa sustatzeko antolatutako ekintza horiek zein motatakoak diren ere aztertuko da, modu orokorrean zein azpisektorearen ikuspegitik. Azkenik, sektore bakoitzaren baitan, antolatu diren ekintzen deskribapen kualitatibo bat egingo da: horretarako, ekintza mota bakoitzaren barruan antolatu diren ekintza nagusien deskribapena, horien helburuak eta adibide batzuk aipatuz.

#### Liburutegiak

Liburutegien sektorearen baitan liburutegi publikoen sarea osatzen duten liburutegiak nagusitzen dira ekintza kopuruari dagokionean: guztira EAeko liburutegi publikoen sarea antolatu diren 706 ekintzari buruzko informazioa jaso da. Ekintza kopururik altuena antolatzen duen azpisektorea berriz foru liburutegiena izan da, batez beste 14 ekintza antolatu baititu azpisektore honetako eragile bakoitzak.

#### **32. Taula.** Liburutegien sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu diren ekintza kopurua, azpisektorearen arabera.

Azpisektorea	Ekintza kopurua	%	Batezbestekoa Ekintza/Eragile
EAeko liburutegi publikoen sarea	706	94,5	4,8
Foru liburutegiak	28	3,7	14,0
Goi mailako ikastegietako liburutegiak	1	0,1	1,0
Espezializatutako liburutegiak	12	1,6	4,0
Guztira	747	100,0	4,9

*Iturria: Siadeco, 2020.*

Ekintzen antolaketa lurraldeka aztertuta alde handia dago Bizkaia edo Gipuzkoan antolatu diren ekintza kopurua (347 eta 307 ekintza, hurrenez hurren) eta Araban antolatu diren artean (93 ekintza); baina ekintzen lurraldekako banaketa hau nahikoa bat dator ekintzak antolatu dituzten eragileen lurralde banaketarekin.

Udalerrri tamainari dagokionez, 20.000 biztanlez azpiko udaletan antolatu da ekintzen gehiengoa (% 78). Ekintza horiek antolatu dituzten eragileen lurraldekako banaketarekin alderatuta (% 85) baxuagoa da portzentaia: 5.000 biztanlez azpiko udaletan liburutegi bakoitzean batez beste ekintza kopurua baxuagoa antolatzen delako.

**33. Taula.** Liburutegien sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu diren ekintza kopurua, lurraldearen eta azpisektorearen arabera.

Azpisektorea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
EAEko liburutegi publikoen sarea	72	10,2	342	48,4	292	41,4	706	100,0
Foru liburutegiak	19	67,9	0	0,0	9	32,1	28	100,0
Goi mailako ikastegietako liburutegiak	0	0,0	1	100,0	0	0,0	1	100,0
Espezializatutako liburutegiak	2	16,7	4	33,3	6	50,0	12	100,0
<b>Guztira</b>	<b>93</b>	<b>12,4</b>	<b>347</b>	<b>46,5</b>	<b>307</b>	<b>41,1</b>	<b>747</b>	<b>100,0</b>
Batezbestekoa (Ekintza/Eragile kopurua)	4,2		5,3		4,7		4,9	

*Iturria: Siadeco, 2020.*

**34. Taula.** Liburutegien sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu diren ekintza kopurua, udalerrri tamainaren eta azpisektorearen arabera.


Azpisektorea	< 5.000 biztanle		5.000 – 20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Guztira	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
EAEko liburutegi publikoen sarea	294	41,6	290	41,1	100	14,2	22	3,1	706	100,0
Foru liburutegiak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	28	100,0	28	100,0
Goi mailako ikastegietako liburutegiak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	100,0	1	100,0
Espezializatutako liburutegiak	0	0,0	0	0,0	0	0,0	12	100,0	12	100,0
<b>Guztira</b>	<b>294</b>	<b>39,4</b>	<b>290</b>	<b>38,8</b>	<b>100</b>	<b>13,4</b>	<b>63</b>	<b>8,4</b>	<b>747</b>	<b>100,0</b>
Batezbestekoa (Ekintza/Eragile kopurua)	3,7		5,7		9,1		5,3		4,9	

*Iturria: Siadeco, 2020.*

Ekintzen sailkapenari dagokionez, ekintzen erdia baino gehiago irakurketa saioak dira (zehazki 411 ekintza, Liburutegien sektoreak antolatutako ekintzen % 55). Bigarren maila batean kokatzen dira Orientazioa, Azokak eta jaialdiak, Liburuaren promozioa, Autoreak, Sariak eta Bisitak kategoriatan sailkatutako ekintzak (54 eta 76 ekintza artean kategoria bakoitzean).

Teknologia berriekin zerikusia duten irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak 37 izan dira Liburutegien sektorean.

**41. grafikoa.** Liburutegiak sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen sailkapena.



Iturria: Siadeco, 2020.

**35. Taula.** Liburutegiaren sektorean irakurketa ludikoa sustatzeko antolatu diren ekintza kopurua, azpisektorearen eta ekintzen sailkapenaren arabera.

		Azokak eta jaialdiak	Sariketak	Autoreak	Liburuaren promozioa	Irakurketa saioak	Orientazioa	Teknologia berriak	Hedabideak	Bisitak
EAEko liburutegi publikoen sarea	Kop	67	56	64	66	393	70	35	5	52
	%	9,5	7,9	9,1	9,3	55,7	9,9	5,0	0,7	7,4
Foru liburutegiak	Kop	4	0	3	4	11	5	2	1	1
	%	14,3	0,0	10,7	14,3	39,3	17,9	7,1	3,6	3,6
Goi mailako ikastegietako liburutegiak	Kop	0	0	0	0	1	0	0	0	0
	%	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Especializatutako liburutegiak	Kop	4	0	0	0	6	1	0	0	1
	%	33,3	0,0	0,0	0,0	50,0	8,3	0,0	0,0	8,3
Guztira	Kop	75	56	67	70	411	76	37	6	54
	%	10,0	7,5	9,0	9,4	55,0	10,2	5,0	0,8	7,2

Iturria: Siadeco, 2020.



Liburutegien sektorean antolatutako diren **ekintzen deskribapena eta lortu nahi diren helburuak**:

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Azokak eta jaialdiak	Liburu azoka	Liburu eskaintza zabala irakurleen esku jartzea herrian. Kasu batzuetan azoka hauek irakurzaletasunaren sustapenetik haratago beste helburu solidario batzuk ere izan ohi dituzte.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udal liburutegia ezagutzera ematea</li> <li>• Herriko liburu-dendak ezagutzera ematea</li> <li>• Liburuaren kontsumoa sustatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburu Azoka / Feria del Libro" GETXO – VILLAMONTE UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Elkartasun Liburu eta Diska Azoka" GORLIZ – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Liburu Azoka" MUNITIBAR UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Liburu erakusketa Euskaltzaindiaren Literatur Jardunaldiaren barruan" EUSKALTZAINDIKO LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Erakusketa bibliografikoak	Gai edo ospakizun jakin bat ardatz hartuta antolatzen diren erakusketa bibliografikoak. Liburu erakusketa horietan gai horri dagokion liburutegi fondoa erakusten da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren fondo bibliografikoa ezagutzera ematea</li> <li>• Erakusketaren ardatz izan den gaian sakontzea</li> <li>• Herritarak liburutegira gerturatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Exposición bibliográfica con motivo del Día de la Mujer" ABANTO ZIERBBENAKO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Interesgunea – Aniztasuna" / "Interesgunea – Negua" URRETXU UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Liburuaren eguna	Liburuaren egunaren baitan (apirilak 23) liburutegietan hainbat ekintza antolatzen dira. Haur Liburuaren Nazioarteko eguna ere ospatzen da liburutegietan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburuaren eguneko ekitaldiak herritarak liburutegira erakartzeko baliatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburuaren eguna" AJANGIZ – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Día Internacional del Libro" EIBAR – JUAN SAN MARTIN UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Día del libro" OROZKO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna" TOLOSA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Liburutegiaren eguna	Liburutegien egunaren baitan (urriak 24) liburutegietan hainbat ekintza antolatzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegien eguneko ekitaldiak herritarak liburutegira erakartzeko baliatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburutegi Eguna" ANDOAIN – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Azokak eta jaialdiak	Literatura jaialdiak	Literatur jaialdien baitan irakurketa sustatzearekin loturiko hainbat ekintza antolatzen dira; askotan ekintza horietan beste diziplina artistikoetako ekintzak ere burutzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurzaletasuna sustatzea</li> <li>• Diziplina artistiko ezberdinak biltzea jaialdi berean</li> <li>• Eskaintza ezberdinen bitartez publikoa literaturara gerturatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Gutun Zuria – Bilboko Letren Jaialdia" AZKUNA ZENTROA – MEDIATEKA</li> <li>» "Hitz andana: hitzaren inguruko jaialdia" HERNANI – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Olerki jaialdiak	Poesia ezagutzera emateko jaialdiak. Jaialdiaren baitan ekintza ezberdinak antolatzen dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Publikoa poesiara gerturatzea</li> <li>• Poesia sormena ezagutzera ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Olerki topagunea" IGORRE – I. ZUBIZARRETA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Cita con la poesía" IGNACIO ALDEKOA GASTEIZKO LIBURUTEGI PUBLIKOA</li> </ul>
	Liburutegiek antolatutako bestelako jaialdiak	Liburutegiek bestelako jaialdiak ere antolatu dituzte. Liburuarekin zuzenean ez bada ere, bestelako ekintzen bidez irakurketa sustatzea da helburua (antzerkia, musika...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Modu ludikoan irakurzaletasuna sustatzea</li> <li>• Liburutegia topagune bihurtu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Pijama festa" PASAI DONIBANEKO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Baserriko porrusalda ikuskizuna" MUNDAKA – J.M. ETXEITA UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Bigarren eskuko liburuekin antolatutako ekintzak	Liburuei bigarren bizitza bat eman asmoz antolatutako ekintzak: liburu trukean oinarritutako liburu azoka, bigarren eskuko liburu azoka solidarioa...	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburuei bigarren bizitza bat ematea</li> <li>• Liburuak trukatzuz irakurzaletasuna sustatzea</li> <li>• Liburutegietako zerbitzuen eta programen informazioa zabaltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburuak trukatzeko IX. Azoka" GASTEIZKO LIBURUTEGI SAREA</li> <li>» "Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa" GETXO – VILLAMONTE UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Azokak eta jaialdiak	Liburutegia beste espazio batzuetara zabaltzea	Bere ohiko eremutik haratago eramaten da liburutegia ekintza honekin. Herriko beste eremu batzuetan ere liburutegi zerbitzua eskaintzen da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegia kalera atera, jendearengan gerturatu</li> <li>• Erabiltzaileak erakarri</li> <li>• Irakurketa aire librean sustatu</li> <li>• Liburutegiaren erabilera sustatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Biblioterraza" ARTZINIEGA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Biblioteca en la calle" BERANTEVILLA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Bibliopiszina" BERGARA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Liburutegia Plazara" ELGETA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Letren terrazak" GETXO – VILLAMONTE UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Biblioparque" ZUMARRAGA UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
Sariketak	Udalerrri mailako literatura lehiaketak	Literaturaren alorrean sormen lana saritzeko eta sortzaileen lanari ikusgarritasuna emateko antolatutako lehiaketak dira. Kasu batzuetan adin-talde bati (haurrei bereziki) edo bestelako xede-talderen bati zuzendutako lehiaketa espezifikoagoak izan ohi dira; edota gai konkretu baten ingurukoak (narratiba solidarioa, emakumeak...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormena saritzea</li> <li>• Sortzaileen lana ezagutzera ematea</li> <li>• Irakurketa sustatu idazketaren bitartez</li> <li>• Baloreak sustatzea (solidaritatea, berdintasuna...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Haur eta Gaztetxoentzako literatura lehiaketa" ALTZO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Bermeo Uria Narrazio lehiaketa" BERMEO – JOXE MIEL BARANDIARAN UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "XXV. Irakurketa lehiaketa" ELORRIO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Certamen literario Villa de Ermua" ERMUA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Mikel Zarate Haur Literatura Saria" LEZAMA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Certamen narrativa solidaria Osmundo Bilbao" MUSKIZ – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Lilako martia, emakume idazleak" lehiaketa ZAMUDIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Sariketak	Ipuin laburren lehiaketa	Literaturaren alorrean sormen lana saritzeko eta sortzaileen lanari ikusgarritasuna emateko antolatutako lehiaketak dira. Kasu ipuin laburren lehiaketa litzateke	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormena saritzea</li> <li>• Sortzaileen lana ezagutzera ematea</li> <li>• Irakurketa sustatu idazketaren bitartez</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» “Concurso de microrelatos” ARTZENTALES – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» “Mikro ipuin lehiaketa” BERASTEGI – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» “v. Nanoipuin lehiaketa” GASTEIZKO LIBURUTEGI SAREA</li> <li>» “Larraulgo Mikro ipuin lehiaketa” LARRAUL – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» “OrriBakaR literatur lehiaketa” LEZO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Poesia lehiaketa	Poesia lehiaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Poesiarekiko zaletasuna sustatzea</li> <li>• Poesiari ikusgarritasuna ematea</li> <li>• Sormena saritzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» “Olerki lehiaketa” PASAIA – TRINTXERPEKO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Ipuin marraztuen lehiaketa edo ilustrazio lehiaketa	Literatura sormenaz gain ilustrazio sormena saritzea helburu duen ekintza.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormena saritzea: literatura alorrekoa zein marrazkigintzakoa</li> <li>• Sortzaileen lana ezagutzera ematea</li> <li>• Irakurketa sustatu idazketaren bitartez</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» “Hizki-Marrazki literatur lehiaketa” ANOETA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» “Concurso de ilustración” ARTZINIEGA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina	Euskaltzaleen Topagunearen egitasmoa da. Egitasmoa martxan duen liburutegi batera joan eta euskarazko liburu bat irakurritakoan beste norbaiti oparitzeko euskarazko liburu bat erosteko baleen zozketan parte hartzeko aukera eskaintzen da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegi publikoen erabilera bultzatzea</li> <li>• Euskarazko literatura ezagutaraztea</li> <li>• Euskal liburugintza indartzea</li> <li>• Euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» “Irakurri, Gozatu eta Oparitu Kanpaina” BEASAIN – LOINAZKO SAN MARTIN UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Sariketak	Irakurketara gerturatzeko bestelako jarduera ludiko edo lehiaketak	Literatura edo irakurketa oinarri duten bestelako lehiaketa edo sariketak antolatzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko gazteenengan irakurketa sustatzea</li> <li>• Gazteen parte hartze aktiboa lortzea</li> <li>• Jarduera ludikoaren bitartez herritarrek irakurketara gerturatzeko</li> <li>• Bestelako lehiaketen bitartez herritarrek (bereziki gazteak) liburutegira hurbiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Gynkana literaria" ARTZENTALES – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Cata literaria" BERANTEVILLA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Concurso Puz-tees" EIBAR – JUAN SAN MARTIN UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Orri markagailu lehiaketa" ELORRIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Argazki lehiaketa" ZIZURKIL – PLAZIDA OTAÑO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
Autoreak	Liburu aurkezpenak	Autoreekin liburu aurkezpenak egitea ohikoa da (normalean liburu berrien aurkezpena izaten dira). Liburu sinatzea ere geroz eta ohikoagoa dela ikusten da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazleen sormen lana aurrez aurre ezagutzea</li> <li>• Bertako sormenaren sustapena</li> <li>• Irakurleak liburutegira erakarri</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburu aurkezpenak" ADUNA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Presentación de libro" ARTZINIEGA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Liburu aurkezpena" BAKIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Encuentros con el autor" BALMASEDA – ENRIQUE BEDIA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Presentación de libro" ZIGOITIA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Haur eta gazteei zuzendutako liburu aurkezpenak	Bereziki adin-talde bati zuzendua dauden liburu aurkezpenak dira. Liburutegiko erabiltzaile diren haur eta gazteen artean aurretik idazle horren liburu irakurketa sustatzen da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazleen sormen lana aurrez aurre ezagutzea</li> <li>• Haur eta gazteei irakurketarekiko zaletasuna piztea</li> <li>• Haur eta gazteak liburutegira erakarri</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Haur eta gazteentzako hitzaldiak" ALTZO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Autoreak	Idazleekin solasaldiak	Liburutegiek idazle ezberdinekin solasaldiak antolatzen dituzte. Idazlearen liburu jakin bati buruzkoak edo gai konkretu bati buruzkoak izan daitezke. Ikastetxeekin elkarlanean ekintza hau ikastetxeetan bertan ere antolatu ohi da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gustuko autore edo gaien bitartez irakurleak liburutegira erakartzea</li> <li>• Irakurleen parte hartze aktiboa sustatzea: irakurle eta idazleen arteko ideia, esperientzia trukaketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Idazleak eskoletan" ARETXABALETA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Charla con los autores" ARRAIA-MAEZTU UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Encuentros con escritores y escritoras" BILBAO BIDEBARRIETAKO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Idazlearekin harixa emöten" EIBAR – SAN JUAN MARTIN UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Encuentros literarios de escolares con escritoras/es" ERMUA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Kafe tertulia Hugo Enea" PASAIA – DONIBANEKO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Idazle eta ilustratzaileekin tailerrak	Idazle eta ilustratzaileekin antolatutako tailer praktikoak. Ikastetxeekin elkarlanean antolatutako ekintza.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazle eta ilustratzaileen sormen lana aurrez aurre ezagutzea</li> <li>• Ikasleen sormenari bide ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Making" IURRETA – HERRI BIBLIOTEKA</li> </ul>
	Liburu irakurraldiak	Autoreek liburu baten pasarte bat irakurtzen diete ekintzara bertaratu direnei	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntzaren ahozko transmisioa landu</li> <li>• Irakurraldien bitartez publikoa irakurketara gerturatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Lectura de un libro por el autor" MARURI – JATABE – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Bisita gidatuak autoreekin	Autore baten obra ardatz hartuta lan horrekin zerikusia duten espazio edo gune ezberdinetara autoreak berak gidatutako bisitak egitea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idazleen sormen lana aurrez aurre ezagutzea</li> <li>• Irakurleen parte hartzea aktiboa sustatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Bisita gidatua Donibanetik Sergio Pereiraren eskutik" PASAIA – DONIBANEKO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Liburuen promozioa	Liburutegiko liburu eskaintzaren promozioa	Liburutegiko eskaintzaren promozioa egiten da horretarako bide ezberdinak erabiliz	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiko eskaintzaren promozioa egitea</li> <li>• Eskaintza ahalik eta erabiltzaile gehienera iristea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Hileko ateraberririk" ERANDIO – ALTZAGA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Guías de lectura" GETXO - VILLAMONTE UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Euskarazko produktuen katalogoa" ZEGAMA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Teknologia berrien bitartez liburutegiko eskaintza promozionatu	Teknologia berriak erabiliz (batez ere komunikaziorako ohiko tresnak: whatsapp, telegram...) liburu gomendioak partekatu erabiltzaileen artean	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiko eskaintzaren promozioa egitea</li> <li>• Eskaintza ahalik eta erabiltzaile gehienera iristea</li> <li>• Irakurketa eta teknologia berriak uztartzea</li> <li>• Teknologia berrien potentzialitatea liburutegietan aplikatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburu bat opari" ELGETA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Bloga eta sare sozialak" IBARRA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Liburuak oparitzea	Liburutegiko fondoa osatzen duten zenbait liburu liburutegiko erabiltzaileen artean oparitzean datza ekintza hau. Liburuaren inguruko ospakizunen baten bueltan izan ohi da (liburuaren eguna...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren sustapen egitea</li> <li>• Liburuak mailegatu dituzten bezeroak saritzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Liburutegiaren eguna ospatzeko liburuak opari" ELORRIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Liburuen erosketa sustatzea	Liburutegiko erabiltzaileen artean liburuaren erosketarako bonuak banatu dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburuen erosketa sustatzea</li> <li>• Liburutegiko erabiltzaileak saritzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Irakurketa sustatzeko erosketa bonuak" EZKIO-ITSASO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Liburutegiko eskaintza herriko beste espazio batzuetara zabaltzea	Liburutegiaren eskaintza bibliografikoa ohiko eremutik haratago eramaten da ekintza honetan publiko zabalago batengana hurbiltzeko asmoarekin. Normalean liburuarekin loturarik ez duten eremuak izan ohi dira (merkataritza establezimenduak, tabernak, kiroldegia...)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa eremu berrietara zabaltzea</li> <li>• Herriko liburutegia eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak ezagutzera ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Leer y Compartir" ABANTO ZIERBENA – GALLARTAKO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Rincón del parque" AMURRIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Zaharren egoitzan eta anbulategian liburuaren promozioa" BERGARA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Liburuen promozioa	Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina	Euskaltzaleen Topagunearen egitasmoa da. Egitasmoa martxan duen liburutegi batera joan eta euskarazko liburu bat irakurritakoan beste norbaiti oparitzeko euskarazko liburu bat erosteko baleen zozketan parte hartzeko aukera eskaintzen da.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegi publikoen erabilera bultzatzea</li> <li>• Euskarazko literatura ezagutaraztea</li> <li>• Euskal liburugintza indartzea</li> <li>• Euskarazko produktuen kontsumoa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Irakurri, Gozatu eta Oparitu Kanpaina" ATXONDO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina" GASTEIZKO LIBURUTEGI SAREA</li> <li>» "Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa (IGO)" LEKEITIO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Produktu ezberdinen bitartez liburutegiaren promozioa egitea	Liburutegian liburu bat mailegatu dutenei (liburuaren egunaren aitzakian, adibidez) merchandising produktu bat oparitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiaren sustapen egitea</li> <li>• Liburuak mailegatu dituzten bezeroak saritzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Poltsaren banaketa" BARAKALDO – UDAL LIBURUTEGI NAGUSIA</li> </ul>
	Liburu trukaketa	Bookcrossing edo liburu trukaketa antolatzen da, herriko gune ezberdinetan liburuan herritarren eskura jarritz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiko eskaintza herritarrengana gerturatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Bookcrossing" ERANDIO – ALTZAGA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Bookcrossing" URNIETA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>



Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Irakurketa saioak	Ipuin kontalarien saioak	Ipuin baten kontaktaren bitartez, eta musika edo antzerkiaz lagunduta kasu batzuetan, haur txikiak literaturaren mundura erakarri nahi dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko txikiengan ipuinekiko grina eta zaletasuna sortzea</li> <li>• Bestelako arteak literaturarekin uztartuz ipuinen mundua erakargarri egitea</li> <li>• Baloreetan heztea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Ipuin kontaldiak" ABADIÑO – UDAL MEDIATEKA</li> <li>» "Ipuin kontalariak" ADUNA – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Irakurketa taldeak	Aurrez irakurritako liburu baten inguruan aritzen diren irakurleez osatutako irakurketa dialogikoko taldeak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberaren gaitasunak garatzea elkarrekin eginiko irakurketaren bidez.</li> <li>• Liburu jakin baten inguruko iritzia partekatzea</li> <li>• Irakurketaz gozatzea</li> <li>• Irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Club de lectura Agurain" AGURAIN – LIZARRAGA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurketa kluba" AMOREBIETA-ETXANO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Literatura solasaldiak" ANDOAIN – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Haur eta gazteei zuzendutako irakurketa taldeak	Aurrez aukeratutako liburu baten inguruan haur eta gazteekin solastea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberaren gaitasunak garatzea elkarrekin eginiko irakurketaren bidez.</li> <li>• Liburu jakin baten inguruko iritzia partekatzea</li> <li>• Haur eta gazteek irakurketaz gozatzea</li> <li>• Haur eta gazteengan irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Haur eta gazteentzat irakurketa" ALTZO – UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
	Irakurketa tailerrak	Irakurketarekiko motibazioa eta irakurzaletasuna sustatzeko antolatutako tailerrak dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketaz gozatzea</li> <li>• Irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Irakurketarako motibazio tailerra" AMOREBIETA-ETXANO UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Irakurketa saioak	Ipuin kontalarien saioak	Ipuin baten kontaktaren bitartez, eta musika edo antzerkiaz lagunduta kasu batzuetan, haur txikiak literaturaren mundura erakarri nahi dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko txikiengan ipuinekiko grina eta zaletasuna sortzea</li> <li>• Bestelako arteak literaturarekin uztartuz ipuinen mundua erakargarri egitea</li> <li>• Baloreetan hezteak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Ipuin kontaldiak" ABADIÑO – UDAL MEDIATEKA</li> <li>» "Ipuin kontalariak" ADUNA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Cuentacuentos en inglés en carnaval: The paper bag princess" ARTZINIEGA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Cuentacuentos musical Ameli eta Irati: zazpi neska ausart" ARTZINIEGA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Cuentacuentos musical" LAGUARDIA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurzaletasuna bultzatzeko ipuin kontalariak" ARAMA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Ostegun kontalariak" OÑATI - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Nor zara zu?" SEGURA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Yoga ipuinak" ELGETA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Rol jokoak ipuin kontaketa" ZUMAIA - UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Ipuin kontaketa musikatua" LEGORRETA - UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Irakurketa saioak	Irakurketa taldeak	Aurrez irakurritako liburu baten inguruan aritzen diren irakurleez osatutako irakurketa dialogikoko taldeak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren gaitasunak garatzea elkarrekin eginiko irakurketaren bidez.</li> <li>Liburu jakin baten inguruko iritziak partekatzea</li> <li>Irakurketaz gozatzea</li> <li>Irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Club de lectura Agurain" AGURAIN – LIZARRAGA UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurketa kluba" AMOREBIETA-ETXANO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Literatura solasaldiak" ANDOAIN – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurzale klubak- Irakurketak elkarkidetzan" BERRIZ – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Club lectura fácil" URRETXU – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Jubilatuak elkarteko irakurketa taldea" ZEGAMA – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Esploratzaileak" UBIK, TABAKALERAKO SORKUNTZA LIBURUTEGIA</li> <li>» "Irakurketa erraza saioak" KOLDO MITXELENA LIBURUTEGIA</li> <li>» "Club de lectura fácil APDEMA (Asociación a favor de personas con discapacidad intelectual de Álava)" IGNACIO ALDEKOA GASTEIZKO LIBURUTEGI PUBLIKOA</li> </ul>
	Haur eta gazteei zuzendutako irakurketa taldeak	Aurrez aukeratutako liburu baten inguruan haur eta gazteekin solastea, batzuetan idazlea bera bertan dagoelarik	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren gaitasunak garatzea elkarrekin eginiko irakurketaren bidez.</li> <li>Liburu jakin baten inguruko iritziak partekatzea</li> <li>Haur eta gazteek irakurketaz gozatzea</li> <li>Haur eta gazteengan irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Haur eta gazteentzat irakurketa" ALTZO – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Umeen irakurketa kluba" ARRATZU – UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Idazlearekin harixa emoten" ELGOIBAR - GOTZON GARATE UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Irakurketa saiok	Irakurketa tailerrak	Irakurketarekiko motibazioa eta irakurzaletasuna sustatzeko antolatutako tailerrak dira	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketaz gozatzea</li> <li>• Irakurketa bultzatzea</li> </ul>	<p>» » "Irakurketarako motibazio tailerra" AMOREBIETA-ETXANO UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» » "Irakurketa tailerra" DEBA - OSTOLAZA UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» » "ZIG tailerreko irakurketa errazeko taldea" DEBA - OSTOLAZA UDAL LIBURUTEGIA</p>
	Gurasoentzako tailerrak	Gurasoek haien seme-alabei ipuinak kontatzeko gomendioak eta tresnak eskaintzeko saiok dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxeko txikiengan irakurketa bultzatzea</li> <li>• Irakurketaz familian gozatzea</li> <li>• Gurasoei ipuinak kontatzen laguntzea.</li> </ul>	<p>» "Gurasoen tailerrak" ARETXABAETA - UDAL LIBURUTEGIA</p>
	Irakurketa talde feministak	Aurrez irakurritako liburu baten inguruan aritzen diren irakurleez osatutako irakurketa dialogikoko taldeak dira, berdintasunaren gaiarekin zerikusia dutenak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketaz gozatzea</li> <li>• Irakurketa bultzatzea</li> <li>• Berdintasunaren eta feminismoaren inguruan hausnartzea</li> </ul>	<p>» "Club de lectura feminista (castellano y euskera)" ARRAIA-MAEZTU - UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» "Solasaldi moreak" ATXONDO - UDAL LIBURUTEGIA</p>
	Irakurketa taldeak familian	Irakurketaz eta ipuinen kontaketaz familian, gurasoak eta seme-alabak elkarrekin, gozatzeko taldeak dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrengan irakurketa bultzatzea</li> <li>• Gurasoei ipuinak kontatzeko tresnak ematea.</li> <li>• Ahozkotasuna sustatzea</li> <li>• Familian irakurzaletasunaz gozatzea.</li> </ul>	<p>» "Irakurketa familian" ARRIGORRIAGA-ABUSUKO UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» "Gu ere kontalari" DEBA - OSTOLAZA UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» "Familien irakurketa kluba" OTXANDIO UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>» "Kontuleku: ume eta gurasoen arteko irakurketa eta ipuin saiok" BAKIO - UDAL LIBURUTEGIA</p>

Ekintza mota	Ekintza motaren zehaztapena	Deskribapena	Ekintzaren helburuak	Adibideak
Irakurketa saiok	Idazketa tailerrak	Helduak testuak sortu eta idazten trebatzeko saiok dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuen idazketan trebatzea</li> <li>• Sormenean sakontzea</li> <li>• Hitzen bidez norberaren nahi duena (sentimenduak, bizipenak, iritziak...) adierazten ikastea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» "Taller de escritura personas adultas" ARRIGORRIAGA-HERRIGUNEKO UDAL LIBURUTEGIA</li> <li>» "Taller de escritura" PORTUGALETE - UDAL LIBURUTEGIA</li> </ul>
*Lehenengo momentutik familiek hasi behar dugu irakurzaletasuna garatzen eta ondoren eskolari dagokio lan horretan laguntzea ere*

*Gizarte guztiari baina bereziki familiari eta hezkuntzari*

### Lehen Hezkuntza

*Considero que se trata de una responsabilidad social en la que todos somos responsables. Naturalmente, la educación posee un papel fundamental en ello, pero para ello debemos contar con el apoyo de las familias, que deben a su vez predicar con el ejemplo y poner a disposición de sus hijos e hijas los medios necesarios para ello. Por otra parte, sería necesario realizar un cambio de valores a nivel social que pase por concebir la lectura como una actividad de ocio más como lo pueden ser el fútbol, el cine o ir de bares. Nuestros jóvenes no perciben en general que la lectura posea cierto prestigio social y, por lo tanto, la rechazan*

*Guztioi, ikastetxeak barne, baina are gehiago familiei*

*Lehen Hezkuntzako etapan, gurasoen eta irakasleen arteko ardua izango da. Guztiak oreka bat sortu behar dute haiei deigarriak eta gustukoak zaizkien liburuen eta nahitaez irakurri behar direnen artean; izan ere, azken horiek ez dira beti gustukoak izango, eta irakurketari uko egin diezaiokete*

*A las familias y a los centros educativos. Las entidades públicas deben fomentarla mediante la red de bibliotecas y la organización de campañas de lectura, ferias,...*

*A los colegios, es una responsabilidad enorme que no podemos delegar en las familias, quiero decir que no podemos dar por supuesto que va a ser algo que se va a desarrollar en casa, tenemos que tener la certeza de que ofrecemos esa experiencia a nuestros niños y niñas. Evidentemente, tendremos más éxito si la lectura tiene un hueco en la vida familiar de los niños y niñas y es algo a lo que se da valor puesto que ven a su familia leer, pero tenemos que hacerlo en los coles*

### Bigarren Hezkuntza

*En primer lugar a las familias. En segundo, al ámbito institucional*

*Denona da, irakasleengandik hasita, familia eta erakundeen inplikazioarekin*

*A los lectores en general. En el caso de los niños y adolescentes a la familia y al centro escolar*

*Hezitzaileei (familia, eskola...), eta agintariei (politika egokiak bultzatuz, dirua inbertituz, zerbitzuak eskainiz, idazleei lagunduz...)*

*Hezkuntzan ari garen guztiona, eta azpimarratzen dugu arlo guztietako irakasleon lana dela irakurzaletasuna bultzatzearen ardura. Honen aurretik familiak ere zeregin handia duela esan beharra dago*

### Helduen irakaskuntza

*Estimamos que nos compete a los profesionales de la docencia dado nuestro perfil de alumnado : mayor de edad y mayoritariamente de origen extranjero*

*Debe responsabilizarse la familia y reforzarla en la escuela*



## 11. Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzen hartzailleak

### 11.1. Liburutegiak

Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak adin-tarte guztiekin lotzearena da joera nagusietako bat, liburutegietako solaskideen artean. Diskriminatu gabe, beharren arabera ekintzak segmentatuz. Badago beste, bat ordea, bereziki haur-gaztetxoekin eta adinekoekin lotzen dituenak.

Adinekoen kasuan, gaixotasun neurodegeneratiboak ekiditeko edo kontzentrazio gaitasunari eusteko irakurketa oso onuragarria dela adierazi dute, eta entretenimendu gisa aedo bakardadeari aurre egiteko baliabide modura ere bai. Beste batzuek behar bereziak dituzten giza-taldeak ere kokatu dituzte irakurzaletasuna sustatzeko jardueren lehentasunezko xede-taldean.

Haurren kasuan, garapen eta ikasketa prozesuan duadelako eta irakurketaren bidez ezagutzak eta hausnarketa gaitasuna bereganatzen dituztelako jotzen dituzte estrategikotzat. Momentu kritikoa 10-12 urterekin izaten dela uste dute. Ordura arte eskolako irakurketari eusten laguntzen diela. Adin horretan, ordea, irakurle asko galtzen direla.

Nolanahi ere, nahiz eta ekintzak liburutegian edo eskolan burutu, mezua familiek jaso behar dutela defendatzen dute batzuek, haien inplikazioa ezinbestekoa delakoan. Hautematen dira gabeziak; esate baterako, haurrei eskolatik agintzen dizkieten irakurgaiak ez direla berritzen, ezta egungo neska-mutilen zaletasun eta interesetara egokitzen ere.

#### EAEko liburutegi publikoen sarea

*A diferentes tramos de edades. Seleccionando tema de interés. Desde la escuela se han estado haciendo visitas por la mañana. Las familias también participan. También para personas con dificultades especiales de lectura*

*Nik, hasteko, haur eta gaztetxoei zuzenduko nieke. Liburutegitik ikusten dudana da, gaur egun DBHko ikasleek niri orain 20 urte irakurketarako bidaltzen zizkiguten liburu berdinak irakurtzen dituztela. Garaiak, liburuak,... dena aldatu da. Eta gaztetxo bati bere amonaren garaiko liburu bat ematen badiozu irakurtzeko, fisikoki ere ez dio eragiten liburu hori esku artean hartzeak*

*A la familia. Las actividades se pueden desarrollar en la biblioteca, en la escuela,... pero el mensaje debe dirigirse a la familia ya que la implicación de esta es fundamental y ese compromiso debe empezar y continuar en casa*

*Pues especialmente a los niños en edad escolar que comienzan a descubrir la lectura y a los mayores que les ayuda a prevenir enfermedades neurodegenerativas, les entretiene, les acompaña, les ayuda a mantener la capacidad de concentración...*

*Las actividades de fomento de la lectura lúdica debieran comenzar desde la escuela, pero entiendo que, debido a los enormes beneficios tanto humanos como sociales*

*aportados por la misma, deben mantenerse en el tiempo y extenderse a los diferentes sectores sociales*

*Era guztietara antolatu daitezke ekintzak, baina haurrentzako saiok direnean komeni izaten da helduak ere egotea, beraiek baitira gero umeekin jorratuko dutenak gai desberdinak*

*Biblioteca publikoak publiko orori irekita daudenez, publiko heterogeneoaren beharrezanean eman behar diegu ernatzuna, beraz adin tarte guztiei*

*Desde la escuela a los niños y niñas y desde la biblioteca a las familias y a la comunidad en general*

*Creo que debería hacerse en general, segmentado por destinatario, pero con una gran diversidad de públicos*

*El problema creo que empieza más o menos a los 10 años. Entre los 9 y los 13 años es donde se pierden lectores*

*Adin txikikoei ikastolak asko laguntzen die, baina nerabezaroan galdu egiten da. Gazteekin lana egiten jarraitu beharko litzatekeela uste dut, euri atentzia ematen dien gaiekin, ez aspertzen dituenekin. Hortik gora, norberaren egoerara egokitu beharko liriteke ekintzak: familia bat osatzen ari denari horri buruzko gaiak interesatuko zaizkio, kirola egiten dabilenak berean hobetzekoak, eta abar.*

*A los dos extremos poblacionales: los más jóvenes (adquieran conocimientos, reflexionen y adquieran capacidad crítica), y a los más mayores (para seguir trabajando el cerebro, que como todo músculo necesita trabajo). Para los primeros familia, escuela, ámbito socioeducativo y entorno, y para los segundos desde el ámbito público*

*Lehentasuna eman behar zaie ikaste prozesuan daudenei (haurrak zein helduak) eta zailtasunak, edo zailtasunak, edo zailtasunak, dituzten pertsonari. Familiei eta hortik aurrera edonori*

### Foru Aldundietako liburutegiak

*Liburutegi bakoitzaren izaeraren arabera. Eskola biblioteca batek, esate baterako, bere ikasleei edo hauen gurasoei zuzendutako jarduerak antolatuko dituela pentsa daiteke. Herri biblioteken kasuetan, ordea, hau ez dago hain argi. Irizpide desberdinen arabera publikoaren bereizketa edo segmentarizazioa zilegi da (adin edo zaletasun baten arabera), baina aldi berean ere, baztertzaila izan gabe*

*Adin-multzo guztiei, interes ezberdinak dituzten taldeei, ezagutza maila ezberdinak dituzten irakurleei...*

### Liburutegi espezializatuak

*Adin guztietan sustatu behar da irakurzaletasuna. Umeak direnean erraz ikasten dutelako eta beraien garapenerako ona delako. Eta adinduen kasuan beraien bizitzarako onuragarria delako (memoria lantzeko, tristura, bakardadea... gainditzeko, etab.)*

*Especialmente a los niños y jóvenes. Si desde la temprana edad se adquiere el hábito de leer y de buscar las herramientas que forman a la persona, esa habilidad la conservarás toda la vida*

## 11.2. Liburuaren industria

Adinekoentzat irakurketa oso onuragarria izan daitekeela onartuz, haur eta gaztetxoengan jarri dute fokua, bereziki. Azpimarratuz aisiarekin lotuta landu behar dela irakurzaletasuna, ikastetxetik agindutako irakurgaien eredutik aldentuz. Neska-mutilei euren irakurgaiak aukeratzeko asakatasuna eman behar zaiela iruditzen zaie. Zailtasunak onartu dituzte, dena den, gaur egun aisialdiarekin lotutako aukera zabalaren aurrean irakurketa aukeratu dezaten lortzeko.

### Argitaletxeak

*Hartzailea edonor izan daiteke, baina ekintza diseinatzerakoan norengana joko dugun hartu behar dugu kontuan, eta ekintzaren ezaugarriak helburu horren arabera egokitu*

*A los menores. A los adultos es más difícil llegar*

*Oso garrantzitsua eskoletan ematea. Edo haurrei aisialdian. Helduei zuzendutako ekintzak ez dira hain eraginkorrak*

*Considero que las actividades para fomentar la lectura lúdica deben dirigirse al tiempo libre. A que la gente lea por placer cuando tiene tiempo libre en lugar de elegir otra actividad*

### Liburu-dendak

*A la población en general, haciendo hincapié en la infancia*

*A los más jóvenes, pero da igual porque no se puede fomentar la lectura frente al resto de actividades de ocio que hay hoy en día*

*En general a toda la población, sobre todo a los niños, con actividades desde las bibliotecas públicas sobre todo*

*Principalmente a los niños y a los ancianos, pero sin olvidar al resto de la población. Sería interesante que los centros de mayores tuvieran espacios y momentos dedicados a la lectura. Y lo mismo en los centros de pacientes con enfermedades mentales*

*La lectura se fomenta en los menores pero a partir de cierta edad (8 en adelante...) se comienza a perder en la actualidad*

*Se debería dirigir como pilar fundamental a los grupos de edad más jóvenes, empezando por el colegio y la familia. No como una obligación o como un método de evaluación o de nota, sino enfocándolo como algo divertido. No se debería obligar a leer unos libros concretos que el profesor o los padres creen que son los adecuados, sino animar a leer cualquier cosa y animarles a que propongan ellos mismos lecturas alternativas y sin censurar o criticar en ningún momento sus decisiones*

*Sobre todo a los niños en la escuela y a los mayores que se jubilan y en ocasiones no encuentran una actividad que supla en parte la falta de actividad laboral*

*El foco lo pondría en los primeros lectores y el segundo foco en los adolescentes*

*Dirigidos desde el centro escolar junto con los familiares, añadirlo al tiempo libre*

*Irakurzaletasuna txiki-txikitatik landu beharrekoa da, eskolan zein etxeetan (familian). Gaztetxoekin lanketa egin behar den bezala, adinean gora joanda zaletasun hori indartzen joan beharko luke. Helduetan irakurzaletasuna egon dadin, haur zein gaztetan hasi behar da lanketa egiten.*

### 11.3. Komunikabideak

Oinarriak haurtzaroan eta gaztaroan jartzen badira ere, aurrerantzean irakurzaletasuna sustatzen jarraitzeari garrantzia eman diote komunikabideetako solaskideek, helduak neska-mutilentzako eredu izan daitezkeen aldetik. Zaurgarritasun egoeretan dauden familiei, etorkinen familiei, adibidez, arreta berezia eskaintzeari garrantzia eman diote.

*Adin guztietako herritarrei zuzenduta egon behar dute. Eta, nola ez, oinarrian, adin txikikoak egon behar dute. Hezkuntzatik eraginez, etxean (familian) zein aisialdian irakurtzeko zaletasuna sustatzea berebizikoa da. Dena dela, asko dira adinez nagusi diren eta irakurtzeko zaletasunik ez dutenak. Beraz, horiei zuzenduta ere egon behar dute ekinizak. Izan ere, ikusten denetik ikasten da. Hala, adin txikikoek helduek dituzten zaletasunak ere errazago barneratu ahalko dituzte*

*Es una actividad transversal que puede ir dirigida a todo tipo de edades y estratos sociales*

*A cualquiera, poner edad a la lectura es tener una visión absurda de la realidad. Fomentar la lectura no debería cuestionarse, de la misma manera que nadie se cuestiona ya el inglés, euskera, matemáticas, química... pero claro, una generación sin leer es mucho más domesticable*

*Oinarria umetatik ezarri behar da. Baina gaztaroan oinarri hori mantentzea berebizikoa da. Dena den, denon eskura egon beharko litzateke, kultura oro har: Familia zaurgarriak, etorkinak...*

*Garrantzitsua iruditzen zait gune arautuetatik at ere halako ekimenak izatea. Eskolarekin eta halakoekin lotzen badugu, derrigorrean egingo den zerbait izango da, eta bukaerarako, etxekalte izan daiteke. Hautuzkoa izatea, eta norberak hartutako erabakia izateak balorea gehitzen dio aukerari, beraz nik batez ere aisialdiarekin lotuko nuke, adin tarte guztien aisialdiarekin.*

### 11.4. Elkarteak

Alderdi garrantzitsu bati heldu diote elkarteetako solaskideek: neska-mutilek irakurtzen ikas dezaten egiten direla ahaleginik handienak. Baina behin irakurtzen ikasi dutenean, ez dela irakurzaletasuna bera gehiegi lantzen. Familiak eta hezitzaileak inplikatu behar direla txikienekin egiten den lanean, baina aurrerantzean, bigarren hezkuntzako eta baita Batxilergoko ikasleekin ere jarraitu behar dela irakurzaletasuna lantzen.

*Es importante fomentar la lectura desde edades tempranas, pero el problema es que cuando los niños y niñas llegan a una edad determinada en la que ya saben leer, se nos olvida seguir trabajando la lectura y el fomento de esta. Es importante poner en marcha acciones dirigidas hacia los más pequeños y pequeñas buscando la colaboración de familias y educadores pero también acciones dirigidas a niños y niñas de primaria, secundaria e incluso bachillerato*

### Euskara elkarteak

*Gazteei eta familiei, etxean eredia lantzeko*

*Ez zait iruditzen norbaiti bereziki zuzenduak egon behar dutenik bakarrik, baina bai agian lehenetasunez perfil bateko ekintzak burutzea bilatu behar dela. Esaterako, haur eta gazteen irakurzaletasunak garrantzia berezia duela iruditzen zait eta aisialdian burutzen diren ekintzak hartu beharko luteke protagonismoa*

*Adin guztietako publikoari zuzendutako ekimenak ondo egon daitezke. Hala ere, umeengan euskaraz irakurtzeko ohiturak normalizatzea oinarizkoa da*

*Guk helduei begira zuzentzen ditugu baina uste dut garrantzitsua dela kolektibo guztietara zuzentzea. Egun bizi garen garaian, telebista, ordenagailu, ipadak, bideokontsolak; pantailek betetzen dute gure aisialdiaren parte handiena. Eta honako ekintzen bidez, aldaketa txiki eta garrantzitsua eman daiteke adin ezberdinetan. Bai esan bezala kolektiboki, indibidualki, nerabeetan, haurretan, familietan zein helduetan ere*

### Kultur elkarteak

*Creación de públicos desde la infancia y mantener la lectura lúdica hasta la adolescencia, mediante actividades adaptadas y con objetivos específicos (imaginación, comprensión, comunicación, crítica).*

### Literaturaren arloko elkarteak

*Irakurtzeko zaletasuna txikitzen edo gaztetan hartu ezean, zaila ikusten dut heldu aroan hartzea. Beraz, ume eta gaztetxoek egon beharko lirateke zuzenduta, nagusiki*

*Gure elkarteak ez du bereizten adin multzorik eta esparru guztiak hartzen ditu ardatz: familia, ikastetxea, eta irakurketa ludikoa sustatzen dugun neurrian aisialdia*

### Bestelako elkarteak

*Creo que sobre todo es importante que se inculque el gusto por la lectura desde la infancia para que sea algo que forme parte sus vidas*

*Es importante fomentar la lectura desde edades tempranas, pero el problema es que cuando los niños y niñas llegan a una edad determinada en la que ya saben leer, se nos olvida seguir trabajando la lectura y el fomento de esta. Es importante poner en marcha acciones dirigidas hacia los más pequeños y pequeñas buscando la colaboración de familias y educadores pero también acciones dirigidas a niños y niñas de primaria, secundaria e incluso bachillerato*

*Guztiak kontenplatu beharko lituzke. Hezkuntza mailan eta haur eta gaztetxoentzako egiten ditugu baina eredu izan beharko genukeen helduak ez dugu maila ematen. Nola sustatuko dugu irakurzaletasuna inoiz liburu bat esku artean dugula ikusten ez bagaituzte?*

## 11.5. Hezkuntza

Irakurzaletasunaren sustapena txiki-txikitatik egin behar dela iruditzen zaie hezkuntzako solaskideei, eta horretarako, umeak bakarrik ez, euren familiak ere izan behar direla irakurzaletasuna sustatzeko jardueren hartzaile, neska-mutilentzat eredu diren aldetik. Aisialdiko taldeek ere euren ekarpena egin dezaketela azpimarratu dute, esparru ez formalean ere irakurzaletasuna sustatzeko.

### Haur Hezkuntza

*Bereziki ikasleei zuzenduta egon behar da, baina horrek ez du esan nahi familiei eta beste agenteei ere ez zaienik zuzendu behar. Elkarlanean aritu behar dira eskolak, familiak eta herriko eta inguruko elkarte edo entitateak (udal liburutegia, euskara elkarteak....)*

*Creo que cualquier edad puede ser buena, pero las edades más tempranas son quizá las más adecuadas. Cuanto antes formen los libros parte de la vida de una persona, más opciones hay de formar lectores-as. La familia y su actitud ante la lectura son una pieza fundamental en el hábito lector de una persona, por lo que serían a ellas a quienes deberían estar dirigidas las actividades de fomento de la lectura lúdica. Como la escuela también colabora con las familias en esta tarea, serían bienvenidas las actividades que posibilitaran a la escuela fomentar la lectura lúdica entre su alumnado*

*Teniendo en cuenta que los hábitos se adquieren en la infancia, es ese el momento ideal para iniciarse en ella, con estímulos que debemos proporcionar desde todos los ámbitos. Después hay que seguir alimentando y actualizando los hábitos lectores*

*Al alumnado y a las familias*

### Lehen Hezkuntza

*Eskola adinean dauden umeei zuzentzea oso garrantzitsua iruditzen zait, habitoak edo ohiturak adin horietan finkatzen direlako pertsonetan*

*Denei. Galderan aipatutako multzoak (eskola, familia, aisialdia... ere konbinatu daitezke beraien artean. Hau da, senideak etortzea ikastetxera irakurtzea...*

*Gaur egun, haur eta nerabeentzak bereziki. Baina familiak duen eragina ikusita, familiakide guztiek jaso beharko lukete*

*Alde batetik umeei zuzenduta, berdin da zein adinetakoak (ahalik eta gazteago hobe), beste alde batetik familiek honek duen garrantziaz jabetzeko eta azkenik aisialdiko taldeetan latzea ez litzateke gaizki egongo*

*Adin guztietako familiakidei, eskola adin guztiei eta aisialdi guneei*

## Bigarren Hezkuntza

*El fomento de la lectura no tiene límite de edad. Sin embargo, es fundamental trabajarlo en edades tempranas, durante la infancia y la adolescencia. Pero el mundo, la sociedad, también esta formada por los adultos, quienes dan ejemplo a las generaciones que les siguen*

*Argi dago, irakurzaletasuna txikitatik sustatu behar den ekintza bat izan behar dela baina ezin da galdu urteak aurrera doan heinean. Beti presente egon behar da, eta adin tarte guztietan, liburuei, ipuinei...lekua utzi behar zaie*

*Gazteei, zenbat eta gazteago hasi hobeto, plazerez irakurtzen hasten badira gero ere jarraituko dutelako. Baina ez da adin jakin batean moztu behar. Haur txikietan hasi eta adineko jendearenganaino zabaldu beharko lirateke ekintza hauek, irakurtzeko grina edozein momentutan piztu baitaioke pertsonari*

## 12. Irakurzaletasunaren bilakaera azken urteetan

### 12.1. Liburutegiak

Iritzi-banaketa dago, hobera egin duela eta okerrera egin duela diotenen artean. Bilakaera modu desorekatuan gertatu dela uste dute batzuek. Biztanleriaren zati batek baliatu dituela, batez ere, aukera berriak, beste hainbat kolektibo atzean geratu diren bitartean.

Irakurzaletasuna sustatzeko moduak asko ugaritu direla azaldu dute, eta zentzu horretan, teknologia berrien eragina positiboa izan dela. Alabaina, baliabide horiek ondorio negatiboak ere eragin dituztela uste dute. Beste aisialdi aukeren aurrean irakurketa alde batera geratzeaz gainera, irakurtzeko modua bera aldatzen ari dela ohartarazi dute: asko irakurtzen da, baina azkar irakurtzen da, "kontsumo" irakurketa egiten da, patxadarik eta hausnarketarik gabe.

#### EAEko liburutegi publikoen sarea

*Creo que ha mejorado. Que la participación ha aumentado. Incluso para personas adultas. Si se ofrecen temas de interés aumenta la participación siempre que esté bien publicitada*

*Gazteen artean, zaletasun horrek nabarmen egin du behera*

*Garapen bidean doala esango nuke, maila progresibo batean*

*Gero eta gutxiago irakurtzen dugula esango nuke*

*Creo que, en general l@ niñ@s y los jóvenes leen cada vez menos libros*

*Yo creo que de forma muy desigual aunque haya habido más oportunidades de acceso a programas de fomento a la lectura una parte de la ciudadanía se ha beneficiado y otra se ha quedado totalmente al margen*

*Baliabide gehiago eskaintzen denez, irakurzaletasuna ere hobetuz joan dela esango nuke*

*Hace unos años, incluso en el mundo educativo, no eran muchos/as los/as docentes que la ponían en práctica. Hoy día, su grado de instauración es mucho mayor; al punto que no es extraño encontrarse con actividades de fomento de lectura lúdica tanto en centros educativos, bibliotecas, etc.*

*Cada vez es más interactiva y participativa. No se limita a que el narrador cuente la historia y sea el protagonista de la sesión, sino que también los asistentes estén atentos y colaborativos*

*Azken urteotan, batez ere sare sozialen gorakada dela eta, irakurtzeko modua pixkat aldatu egin da. Aukera ezberdin gehiago daude irakurzaletasuna bultzatzeko, bai modu fisikoan baita birtualean ere.*



*Gero eta irakurketa klub gehiago daude. Dena den haur eta gazte literaturan biartekari izateko lanari arreta gehiago eman behar diogula uste dut, biartekariak baliabideak kontrolatzen baditu gure haur eta gaztetxoek erreferenteak izango baitituzte*

*Desde mi punto de vista estamos ante una crisis de la función de la literatura porque se ha estado teniendo una visión utilitaria de la lectura*

*Ha evolucionado porque cada vez hay más profesionales e instituciones que se implican en esta labor, aunque la mejor forma de transmitir el fomento a la lectura es a través del ejemplo, de modo que la familia juega un papel muy importante*

*Aukera asko zabaldu da. Ipuin kontaketak, gidak eta literatura solasaldiak izatek ia ekintza mota bakarrak, arlo eta baliabide ezberdinetako ekintzak izatera pasa dira: app-ak, antzerkiak, telebistako saiok, sare sozialak, lehiaketak, liburutegi digitalak...*

*Hauerek irakurtzen jarraitzen dute, eskolarizazio prozesu eta liburutegien babesean. Gazteen artean, berriz, teknologia berrien eraginez, gero eta gutxiago irakurtzen da. Helduen artean, berriz, emakumeek (liburutegiko egunerokoan oinarrituta) gehiago irakurtzen dutela nabarmendu daiteke*

*En mi opinión ha evolucionado de una manera notable, yo creo que gracias a la tecnología que permite realizar la lectura a través de ebooks, audiolibros..... esto hace que la gente lea de una manera más cómoda y en cualquier sitio*

*Haur eta Gazte Literaturan irakurzaletasuna sustatzearen garrantziaren kontzientzia handiagoa dagoela esango nuke, baina nerabezaro inguruan oraindik liburuak irakurtzera "behartzeak" ez du batere laguntzen. Baliteke irakurzaletasunean hobekuntza txiki batzuk eman izana azken urteetan, baina ez nahikoa. Lanean jarraitu behar dugu*

*Beharazkoa esango nuke, gazteek batez ere, eskolan agindutako liburuak irakurtzen dituzte, ez dute beraien aisialdiarekin lotzen irakurtzea, beraien betebeharrak batekin baizik. Helduen artean berriz, asko irakurtzen duen jendea dago baina baita inoiz irakurtzen ez duena, nere inpresioa da azken multzo hau gorantza doala*

*Irakurtzeko modua, desberdina da. Baliabideak eta euskarriak ugaritu dira, aukera asko dago. Berehalakotasunak ere asko markatzen du. Nire ustez asko eta azkar irakurtzen da. Kontsumoko irakurketak egiten ditugu askotan. Behar bada pixka bat galdu da irakurtzeak behar duen patxada izatea.*

*Zer irakuri, zer hautatu eronka bihurtu da, zailagoa da. Hortik liburutegiek egiten duten lanaren garrantzia hautaketa horretan laguntzen eta irakurketari buruzko hausnartzeko espazioak sortzen.*

### Goi mailako ikastegietako liburutegiak

*Hay demasiado entretenimiento visual (consolas, series...). Creo que la lectura lúdica y no lúdica están perdiendo terreno*

*Aldakorra. Teknologia berriak direla eta paperean irakurtzetik pantaila bidez irakurtzera pasa gara. Jende askok hala ere nahiago du liburu fisikoa*

### Liburutegi espezializatuak

*Creo que a peor; el libro electrónico no termina de "enganchar" a la gente*

## 12.2. Liburuaren industria

Aldaketa teknologiko eta kulturalen bi aldeak nabarmendu dituzte liburuaren industriako eragileek ere.

### Argitaletxeak

*Ekintza puntualak egiten dira, baina kanpaina orokorragoen hutsunea nabaritzen dut*

*La diversión va por otros sitios*

*Nik uste gora joan dela edo mantendu, sektoreak sarri negar asko egin arren. Liburuez gain (ebook-ak bame), Wikipedia irakurtzea da, blogak etab. baita ere. Nire ustez formatuen arteko sinergiak bilatu behar dira, transmedia*

*Ha disminuido debido en gran parte a internet, las redes sociales y los teléfonos móviles de última generación. Todos estos actores en los últimos años le han dado un buen mordisco al "pastel" del tiempo que tenemos libre y que antes usábamos para leer y hacer otras cosas*

### Liburu-dendak

*Me parece que va por muy buen camino*

*Ya sabemos que los móviles han ocupado un gran espacio en las actividades lúdicas, las redes sociales e internet en general, pero ahora que el uso de las tablets y los ebooks está en retroceso, creo que se está dando más importancia a los libros, que no son nada caros en el mercado de segunda mano especialmente*

*Los índices de lectura han bajado frente a otras opciones de ocio (videojuegos, redes sociales, plataformas de televisión tipo Netflix)*

*Creo que se ha perdido bastante el hábito*

*Considero que ha involucionado y cada vez se lee menos*

*Kultur aldaketa sakona gertatzen ari dela nabarmena da. Ohiko errudunak benetan errudunak ote diren, ez daukat hain argi. Guztiok, kontzentratzeko geroz eta gaitasun txikiagoa dugula nabarmena da, adibidez.*

### 12.3. Komunikabideak

Bilakaeraren balorazioak gehiago du negatibotik, komunikabideen kasuan.

*Gaur egun gero eta gutxiago irakurtzen da*

*Lo veo un poco dual. Por un lado, a medida que el nivel cultural general se ha ido incrementado ha crecido el gusto por la lectura. Pero, al mismo tiempo, la utilización de medios digitales (móviles, tabletas, pantallas, etc.) y sus nuevos lenguajes está apartando a los jóvenes de los libros*

*Azken urteetako bilakaera positiboa izan da baina etorkizunera begira sare sozialen bilakaerak baldintzatuko du*

*Behera egin duela esango nuke. Teknologiaren eskutik iritsi zaizkigun dispositiboak eta euren baitan dauden aplikazioak, programak eta abarreko guztiak irakurketaren probrezia bultzatu dute. Irakurketa eraginkorra izateko sakona izan behar da. Irakurketaren moduan eman da batez ere atzerapausoa*

### 12.4. Elkarreak

Oro har, nahiko baikorra da elkarreetako solaskideen ikuspegia. Euskara elkarreek, euskal literaturari dagokionez, 90eko hamarkadatik hona "loraldi" bat izan dela uste dute, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Baina gaur egun, gabeziarik handienak nerabeei zuzendutako irakurgaietan daudela.

#### Euskara elkarreak

*Badirudi gero eta gehiago irakurtzen dela, telefono mugikorrei esker, baina irakurzaletasuna beste kontu bat da eta beheranzko joera ukaezina da. Irudiaren aroan bizi gara, ikus-entzunezkoak dira nagusi media guztietan zein sare-sozialetan, eta horrek geroz eta konplikatugo egiten du ahalegin berezia eskatzen duen irakurtzeko ohitura hartzera*

*Ez nuke jakingo azterketa soziologiko bat egiten honen inguruan, baina egoerak hobera ez duela egin esango nuke*

*Ohitura aldaketa nabarmen bat egon da. Teknologia berriek zuzenean eragin diote irakurzaletasunari*

*Euskarazko sorkuntzak kantitatea eta kalitateari dagokionez loraldia izan duela esango nuke 90 hamarkadatik hona. Egiteko lan handia dagoen arren, horrek irakurzaletasunean eragin zuzena izan duela esango nuke*

*Nerabezaro, gaztaroko euskarazko aukerak anitzagoak izan beharko lirateke. Lan handia egin da umeen literaturan, abain oraindik ere oso hankamotz gaude 13-14 urtetik gorakoentzako literaturan*

### Literaturaren arloko elkarteak

*Positiboa datuak begiratu ezker. Jaisten ez direnean optimista izateko aukera dago*

### Bestelako elkarteak

*Ha evolucionado en positivo aunque queda mucho trabajo por hacer*

*Diría que la posibilidad de acceder a los libros en bibliotecas, bien físicas, bien digitales, es un gran avance en cuanto a la accesibilidad de la población a los libros*

*Hobetzen ari dela esango nuke. Irakurtzeko joera handiagoa dagoela uste dut helduen eta nerabeen artean. Haur eta gaztetxoek ere jarraitzen dute ohitura hauekin baina pantailak dituzte askotan gertuegi.*

## **12.5. Hezkuntza**

Hezkuntzako solaskideek azpimarratu dute, iraultza digitalaren eraginez, bisualagoak baina pasiboagoak diren beste aukera batzuk gailentzen ari direla, irakurketaren orde. Oro har gero eta gutxiago irakurtzen dela uste dutenetako batzuek, hala ere, zehazten dute irakurle direnek gero eta gehiago irakurtzen dutela, baliabide gehiago dituztelako horretarako. Beraz, batzuen eta besteen arteko arrakala handitzen ari dela, nolabait.

Hizkuntzari dagokionez, irakurzaletasunaren zailtasun orokorrak, euskararen kasuan, areagotu egiten direla iruditzen zaie: irakurzaleak direnek gaztelaniaz irakurtzea nahiago dutela, eta euskaraz derrigortuta irakurtzen dutela.

Aspektu positibo gisa, gizarteko kolektibo ezberdinetan zabaldu egin dela adierazi dute, eta produkzioa handitu egin dela, baita hizkuntza gutxituetan ere. Gaiari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola ere adierazi dute batzuek, eta eragile ezberdinak gero eta gehiago inplikatzeko ari direla.

### Haur Hezkuntza

*Jaitsiera nabarmena egon dela pentsatzen dut, kontsumo digital handia daukagu gaur egun*

*Las nuevas tecnologías han comido espacio al libro. Es más fácil ver que hacer el esfuerzo de leer*

*Abiapuntua eskasa zela kontuan hartuz, hoberantz jaon dela ustetan nago. Familiak eta eskolak elkarrekin arlo horretan lantzen dutenetik batez ere*

*Ha bajado mucho por el incremento del uso de las tecnologías*

*Bizi garen mundu teknologiko hau kontuan hartuta, bilakaera gero eta latzagoa dela uste dut. Liburuak ez dute merezi duten tokia ezta denbora ere*

## Lehen Hezkuntza

*Parece que es un ámbito que se amplía, ofreciendo cada vez más actividades; sin embargo, no sé hasta qué punto logran cumplir con sus objetivos*

*Azken urteotan beherakada izan duela iruditzen zait, digital mundu batean bizi garela, imaginek letreei espazio handi bat kendu diete*

*Gaiari gero eta garrantzia gehiago ematen zaio, bai eskoletan, bai familian, bai erakundetan eta bai gizartean.*

*Ikastetxeetan irakurzaletasuna sustatzeko planak egiten ari dira eta komunitateko kideen inplikazioa hau lantzeko gero eta altuagoa da: irakasleak, familiak, erakundeak... Liburutegiak ere, aktibatzen ari dira.*

*Astiro joan arren, gero eta sentsibilitate handiagoa dago gai honen inguruan eta nabarmena da formakuntza eskaintza eta erakunde ezberdinetan antolatzen diren ekintzen programazioa ikusiz gero*

*Euskaraz, gero eta okerrago. Gutxi irakurtzen dute, eta irakurtzen badute batez ere gaztelaniaz. Euskaraz irakurri behar badute derrigorrez egiten dute*

*Gutxiengo batean handitu eta gehiengoan gutxitu*

*Gero eta gutxiago irakurtzen da oro har, baina zaletasuna garatzen dutenek asko irakurtzen dute, agian inoiz baino gehiago, baliabideak eskura ditugulako*

*Oso pobrea. Orokorrean, pobretu egin da hizkuntza (teknologiaren eraginez, familia barruan garrantzirik ez diotelako ematen,...). Osa zaila egiten da gure eskolako gizarte mailan (kanpotik etorritako ume asko eta euskara ezagutu barik, gainera 5.mailan edo 3.mailan edo sartu ohi dira, eta ez da kontuan hartzen haien hizkuntza gaitasuna).*

*Gizartean ere hizkuntzaren garapenak beherakada handia izan du (bai gaztelaniaz bai euskaraz)*

*Esango nuke asko aldatu dela irakurtzeko joera. Orain oso gauza motzak eta azkarrak besterik ez ditugu irakurtzen. Albiste bat bere osotasunean irakurtzea ere egun oso zaila egiten zaigu.*

## Bigarren Hezkuntza

*Orokorrean irakurle gehiago gaudela esango nuke. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan ohiko irakurle asko daudela esango nuke, 14-18 urte bitartean beherantz egiten duela derrigorrezko bezala, ikasketekin lotuta ikusten dutelako*

*Gaiaren ikuspuntua aldatzen ari da*

*Zenbakiak ez doaz gora, dudarik gabe, pantailaren munduan gaude eta modu ludikoan erabiltzen dituzte gazteek. Oso fenomeno mundiala da. Baina agian lehen beste irakurtzen da, horretarako ikerketak egingo lirateko, gure iritzia inpresio bat baino ez da*

*Ez dut uste lehen baino gutxiago irakurtzen denik. Hori bai, badirudi azkenik, onartzen goazela klasikoak ez direla irakurzaletasuna bultzatzeko aukera eraginkorrena*

### Helduen irakaskuntza

*Parece haberse reducido en beneficio de actividades más visuales y más pasivas, como los videojuegos*

*La transformación digital está alejando a las nuevas generaciones de los textos escritos, en beneficio de contenidos audiovisuales*

*Se ha abierto a más parte de la sociedad y se ha multiplicado la producción. También se han abierto las puertas a las lenguas minoritarias*

## 13. Baliabide digitalek sortutako aukerak eta horien ekarpena irakurzaletasunaren sustapenean

### 13.1. Liburutegiak

Zalantza handiak eragiten ditu, liburutegietako solaskideen artean, baliabide digitalek eta teknologia berriek irakurzaletasuna sustatzeko egin duten edo egin dezaketen ekarpenak. Mehatxu modura ikusten dituzte batzuek, aukera modura beste batzuek, eta bi alde horiek dituen eta asumitu beharra dagoen errealitatea dela uste dute askok.

Nolanahi ere, liburutegiek esploratu beharreko tresna eta baliabide gisa ikusten dituzte, batez ere. Nahiz eta ez den erraza horien bitartez irakurketa tradizionala sustatzea. E-book edo audioliburuaren erabilgarritasuna azpimarratzen dute, adibidez, tipografia txikiko liburuak irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat.

#### EAEko liburutegi publikoen sarea

*El fomento de la lectura lúdica va encontrando su espacio en el mundo digital, pueden contribuir con mucha fuerza y recursos*

*Si que crea nuevas oportunidades, móvil, tablet, ebook. Pero sí es cierto que muchas personas seguimos prefiriendo el formato papel*

*Baliabide digitalak bitarteko bat baino gehiago dira eta irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak sortu dituztela iruditzen zait*

*Los e-books pueden contribuir porque permiten aumentar el tamaño de la letra, por ejemplo, lo cual ayuda a determinados colectivos, ya que no es fácil encontrar novelas con letra de gran tamaño. También son útiles los audio libros*

*Jendeak badu ohitura euskarri digitalean irakurtzekoa, eta adibidez, konfinamentu honetan jende askok eskatu du eliburutegirako sarrera*

*Beharbada bai sortuko zuten aukeraren bat, baina nire ustez kalte gehiago egiten diote onura baino*

*Sin duda, han abierto un mundo de posibilidades y han facilitado llegar a más público potencial*

*Jakina baietz, oso lagungarriak dira, konfinamenduaren garaian -eta oraindik egunotan ere- agerian gelditu den bezala. Jarduera baten oihartzuna biderka dezakete (tokiz zein denborazko mugak gainditzen, publikoa handiagotzen, etab.)*

*Creo que sí, dado que técnicamente ofrecen un abanico más amplio de posibilidades para realizar ciertas dinámicas y una mayor interacción*

*Si y no. Por un lado, mediante los recursos digitales pueden ser una oportunidad ya que es más fácil atraer al público; sobre todo, al infantil. Pero hay que saber manejarlo de manera responsable; lo cual es lo más difícil. Considero que en este punto los*

*progenitores (Sobre todo) tienen un papel importante. El problema viene cuando los adultos tampoco manejamos los recursos digitales de manera eficaz*

*Por supuesto que han creado nuevas oportunidades ya que ahora las 24h de los 365 días del año podemos acceder a libros online. Pero se da una contradicción ya que al acceder desde la propia casa a los contenidos hay menos interacción con bibliotecarias, librerías y los propios lectores que se encontraban y comentaban in situ*

*Digitalizazioak beste pentsatzeko eta kontzebitzeko era bat dakar: oso dinamikoa, bisuala, aldakorra, ez kritikoa eta azeleratua dena. Irakurketa tradizionalak bestalde, guztiz kontrakoa eskatzen du: hausnarketa, analisi geldo eta sakona*

### Goi mailako ikastegietako liburutegiak

*Creo que oportunidades sí que hay y habría que explorarlas. Los niños que leen, cada vez leen más en pantallas*

*Irakurtzeko modua aldatu dela egia da. Lagungarria da eskeintzen dituen abantailengatik (pisua, sarbidea non nahi...)*

### Liburutegi espezializatuak

*Hemos incrementado nuestros recursos digitales, pero no creo que hayamos incrementado el hábito de la lectura*

## **13.2. Liburuaren industria**

Liburuaren industriako solaskideek ikuspegi ezkorragoa dute liburutegietakoek baino. Nolanahi ere, neurri batean, interes komertzialak dira arrazoia. Liburu digitalen esparruan internet bidezko deskargak nagusitzen direlako, batez ere, eta horrek haien salmentak murriztea dakarrelako.

### Argitaletxeak

*Considero que en tramos adultos y con formación de estudios puede ser útil. Para los primeros lectores una herramienta inútil*

*Ez daukat baliabide digitalen bitartez egin diren sustapenen berri. Suposatzen dut egin egingo zirela. Edozelan ere, interesgarri derizot teknologia berriak helburu horrekin erabiltzeari*

*Sí, pero no les sabemos sacar provecho. Otras áreas de entretenimiento (TV, videojuegos, etc.) han sabido sacar más partido de los recursos digitales*



## Liburu-dendak

*Para las librerías no es bueno que se fomente la lectura digital. No ayuda a la compra de libros, todo son descargas ilegales*

*Creo que los recursos digitales no favorecen en absoluto. Además no fomentan nada en mi opinión*

*Los recursos digitales han fomentado la lectura, pero es una pena que la lectura en libro haya bajado*

*En mi opinión los recursos digitales solo llegan a una parte del público objetivo*

*Tanto las comunidades de lectura como las redes sociales y los booktubers han contribuido al fomento de la lectura*

### **13.3. Komunikabideak**

Aukera berriak sortu direla ezbairik gabe ikusten dute komunikabideetako solaskideek, eta gainera, horiek ustiatzeko premia ikusten dute, ikus-entzunezkoen sektoreak egin duen bezala, adibidez. Bestela, atzean geratuko delako irakurketa, aisialdiko beste aukeren aldean.

*Eliburuak. Salneurria merketu, eta eskuragarritasuna*

*Noski baietz. Teknologiak irakurtzeko moduak aldatu ditu. Material digitala sortzeak irakurzaletasuna bultzatzeko bide berriak zabaltu ditu. Beraz, baliabide digitalen aldeko apustua egin behar da, betiko baliabideak alboratu gabe beti ere*

*De manera muy notoria, sobre todo captando la atención de los públicos nativos digitales*

*Aukerak erraztu dituzte plataforma eta euskarri ezberdinek. Ohiko liburu irakurketak behera egin du argi eta garbi*

*Sin duda. Debe ahondarse en esas nuevas formas de lectura. Se trata de cambiar el soporte,... la lectura en sí, es el mismo acto*

*Bai sortu dituzte irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak baina oso jabe naiz ikusentzunezkoen aroan bizi garela eta alor horretan garapena handiagoa izan dela*

### **13.4. Elkartek**

Irakurketarekin lotutako baliabeek (ebook-ak, nagusiki), uste baino sarbide eskasagoa izan dutela iruditzen zaie elkarteetako solaskideei. Paperaren desagertzeaz aspaldi hitz egiten dela, baina ez dela iristen. Hala ere, irakurzaletasuna sustatzeko ekimen berriak digitalak izan beharko direla uste dute. Zentzu horretan, azpimarratzen dute —eta ez euskara elkarteek bakarrik— euskarazko eskaintza urria dela irakurketarekin lotutako mundu digitalean (liburu elektronikoak, booktuberrak, booktrailerrak...).

### Euskara elkarteak

*Baliabide hauek ere balio dute irakurzaletasuna motibatzeko*

*Hamarkadak daramatzagu esaten papera desagertu egingo dela baina irudipena daukat irakurtzeko baliabide digitalen hedapena uste baino motelagoa ari dela izaten. Ebook eta abarrez ari naiz. Beraz, arazoa ez dut uste euskarria denik, irakurtzeko zaletasun eza baizik, nahiz eta aldi berean uste dudan zaletasuna sustatzeko ekimen berriak digitalak izan beharko direla gazteak harrapatuko badituzte*

*Doakotasunak lagunduko lukeela iruditzen zait. Liburuak erosteko deskontuak emanez, komunikabideetako harpidetzak oparituz/lagunduz...*

*Aukera berriak sortu dituzte dudarik gabe eta horien erabilera beharrezkoa dela iruditzen zait. Hala ere, aukera berri hauek hizkuntza eta plataforma ezberdin askotan ematen direnez, euskarazko eskaintzak bere espazioa azkar bilatzean saiatu behar da, modu erakargarriak sortuz eta gizarteari ezagutzera emanez*

### Literaturaren arloko elkarteak

*Bai, lagungarria dira baliabide digitalak erabiltzea, euskal hiztunentzat booktuberren fenomenoak landu gabekoa da oraindik, promozioa eta garapena beharko litzateke.*

*Gailu digitalen prestakuntza gehiago beharko litzateke, irakurle digitalen taldeak adibidez.*

*Euskaraz urria da literatura digitala, arlo hori bultzatzeko dugu*

### Kultur elkarteak

*Uste dut espero zena baino ekarpen txikiagoa egin diotela baliabide digitaletan irakurzaletasuna sustatzeari, momentuz behintzat. Euskarazko e-liburuak eskuratzeko, esaterako, arazo bat baino gehiago ikusi dut*

### Bestelako elkarteak

*En los últimos tiempos, mucha gente ha optado por la lectura en medios electrónicos, y hay verdaderas redes de lectores que comparten sus lecturas electrónicas*

*Uste dut, batzuk lagunduko dutela, baina beste batzuk ez direla batere eraginkorrak*

### 13.5. Hezkuntza

Alde onak eta txarrak ikusten dizkiete, hezkuntzako solaskideek, baliabide digital eta teknologiko berriei. Batzuek irakurzaletasunaren kalterako eragina izan dutela iruditzen zaie. Beste batzuek nahiago dute aukera gisa heldu erronkari, onartu beharreko aldaketa modura onartuz eta irakurzaletasuna sustatzeko helburuari begira ere ahalik eta etekin handiena ateratzeko saiakera eginez.

#### Haur Hezkuntza

*No. Creo que la digitalización ha traído un alejamiento de la lectura en general*

*Kalte egin dutela uste dut. Erreza da haien bidez jendearengana heltzea, baina irakurtzeko balaibide edo herramientak heltzen zaizkugun bezala, beste hainbat estimulo, jarduera, informazioa, aukera...heltzen zaizkugu. Gehiegi*

*Pueden ayudar mucho, para los niños/adolescentes, es su lenguaje y la manera de comunicarse. Es la manera de acercarlos los libros. Lo más pequeños no necesitan recursos digitales sino a sus maestros y padres*

*Gazteagoengana iristeko beste modu bat litzateke: animazioa, mugimendua...*

*Beste euskarri bat gehiago da. Hala ere baliabide onena, ezin dena ordezkatu, pertsonak direla uste dugu. Pertsona batek ipuin bat kontatzea eta ikasleek adi-adi egotea honi entzutzen... Baliabide digitalak ondo daude, baina neurrian. Nahikoa denbora pasatzen dute pantallen aurrean.*

#### Lehen Hezkuntza

*Irakurzaletasuna sustatzeko baliabide digital bakarra okurrizten zaigu eraginkor, booktuberrek eskaintzen dutena. Adin batetik aurrera erakargarri izan baitaitezke. Gainerakoan liburu, egunkari, e.a. fisikoen bidezko apustua egiten dugu, pantailetara ohituegiak baitaude eta hauetan testuak agertzen diren bakoitzean "salto"egiteko joera baitute*

*Uste dugu baietz. Orain badakigu irakurzaletasuna garatzeko testu bat entzutea oso baliogarria dela. Eta han daude liburu digitalak. Beste aldetik, adibidez, e-bookak ere erakargarriak dira*

*Nire ustez baliabide digitalak erabiltzerakoan irakurtzen da, baina beste irakurketa mota da, motzagoa, azkarragoa, desberdina*

*Balio digitalak laguntzen dute irakurzaletasuna sustatzen, testu desberdinak aurkitzen, denok elkarrekin zerbait irakurtzeko aukera ematen digu, ekintza desberdinak antolatzen beti irakurzaletasunaren osagarritzat hartuta.*

*Interesgarritzat jotzen ditugu baina tamalez, euskaraz ez dugu aniztasun eta maila bereko bilakaerarik ikusten*

## Bigarren Hezkuntza

*Bai, baliabide berriak sortu dituzte. Baliabide berriek alde onak eta txarrak dituzte, baina ezin zaio bizkarra eman errealitate berri honi. Gazteek (eta gazteak ez direnek) gero eta gehiago erabiltzen dituzte. Beraz, erabilpen horretatik hasita, zeozer egin daiteke. Eta ezin ahaztu liburu digitalak merkeagoak direla*

*Los recursos digitales deben ser un complemento que estimule a la lectura no un sustituto*

*Baliabide digitalek irakurzaletasuna sustatzeko aukera sortu dute. Ondo erabili eta ondo erabiltzen erakustea da garrantzitsua. Baliabide digitalek motibazioan asko laguntzen dute, beraz ondo erabiltzea lagungarri izango da irakurzaletasuna sustatzen*

*Aukera berriak sortu ditzakete: sare sozialen bidez adibidez irakurzaletasuna gazteen artean sustatu daiteke, baina ez da gehiegi egiten zentzu horretan. Gazteak oso libre dabilza eremu horretan, eta beste duki mota batzuk gailentzen dira.*

## 14. Irakurzaletasunaren sustapenerako arazo edo oztopo nagusiak

### 14.1. Liburutegiak

Gizartearen joerei erreparatzen diete liburutegietako solaskideetako batzuek, aurreko galderako erantzunen haritik: gailu digitalen eta internet-konexio etengabearen eraginez beste aukera batzuk gailentzen direla, eta irakurtzen denean, beste era bateko irakurketa egiten dela, azkarra, berehalakoa eta sakontasunik gabekoa.

Gurasoen ardurara eza ere nabarmentzen dute batzuek, ez dutela seme-alaben artean irakurzaletasuna sustatzeko ahaleginik egiten eta nahiago dutela neska-mutilak beste edozein eskolaz kanpoko jardueretara bidali. Haurrek duten agenda beteak irakurzaletasuna sustatzeko jardueren data eta orduekin asmatzea konplikatzeko diela adierazi dute liburutegi batzuek. Aurrekontu, baliabide eta pertsonal falta ere aipatu dituzte, oro har. Baita espazio egokiena ere, kasu batzuetan.

#### EAEko liburutegi publikoen sarea

*La falta de recursos humanos y de dinerarios*

*Gazteen artean, teknologi berrien erabilpena asko barneratu da, beraz, irakurtzeko interesa nabarmen jeitsi da*

*Frente al "esfuerzo" que supone leer (elegir qué libro quieres, dedicarle tiempo y concentración para disfrutarlo,... ), el teléfono ofrece inmediatez y poco esfuerzo. De hecho, creo que ese consumo casi continuo de internet ha acostumbrado a la gente a otra forma de leer, a una lectura rápida, a saltar de un texto a otro en pocos segundos sin profundizar en nada que suponga más tiempo*

*Acertar con las fechas y horarios para su realización debido al gran número de actividades extraescolares de los participantes. También es difícil atraer a público adolescente o adulto*

*Oztopo handiena gizartean dago, gero ta aukera gehiago ditugu, eta askotan momentuko gauzak bizi nahi ditugu. Irakurmenak lasaitasuna eskatzen digu, denbora apur bat, eta gizartean gero eta zailagoa da hori lortzea*

*El problema que detecto es que en esta sociedad en la que vivimos las familias en general, aunque no todas, no le dan ninguna importancia a la lectura lúdica y prefieren que sus hijos e hijas empleen su tiempo libre en ir a clases de gimnasia rítmica, circo, baloncesto...*

*Medio falta, pertsonal falta, aurrekontu falta*

*El obstáculo de que el ritmo de vida actual hace más dificultoso el promocionar actividades que requieren más tiempo, como la lectura*

*Gizartean bizi dugun gaitza: denbora falta*

*Kontzientziazioan dagoela arazorik handiena uste dut. Txikienei irakurtzea ona dela esaten diegu, baina helduek ez dute apenas libururik hartzen urte osoan zehar. Eredu izanda barneratzen da gehien zaletasuna eta helduok kontziente izan behar dugu txikienei esaten diegun horrek guretzat ere balio duela*

*Bai, ez daukat ia ezer antolatzeko astirik, eguneroko lanak denbora guztia jaten dit*

### Liburutegi espezializatuak

*Liburuekiko interesa eta prestigioa gainbehera doa gure gizartean, maila guztietan*

### Foru Aldundietako liburutegiak

*En este momento la oferta de ocio es muy amplia. Hay mucha competencia cuyo consumo requiere mucho menos esfuerzo que el requerido por la lectura. Por otra parte, lectura y calma van de la mano y, hoy por hoy, estamos instalados en unas dinámicas de rapidez y satisfacciones inmediatas que hacen que la lectura se atragante. También, y aunque parezca un contrasentido, la gran oferta de publicaciones (en muchos casos tan dirigida y homogénea como se ha planteado en la pregunta 6) puede llegar a saturar la capacidad de la gente para elegir. Los colegios y el curriculum académico son también dos elementos que pueden llegar a jugar en contra de la lectura por placer. Los alumnos equiparan en muchas ocasiones lectura académica con lectura lúdica y las malas experiencias escolares, derivadas de tener que cumplir obligatoriamente con unos objetivos inflexibles, llevan a que mucha gente ni siquiera le dé una oportunidad a la lectura fuera del ámbito escolar*

*Interesa eta kuriosidadea pizten lortzea da gakoa, nahi dugunerako errazago bilatzen dugu gure egunerokotasunean unetxo bat edo beste*

### Administrazioaren liburutegiak

*La falta de capacidad de concentración a la que nos está llevando este acelerado mundo de lo audiovisual hace que la gente no tenga paciencia para leer un texto largo. Y creo que ese es un problema generacional que será difícil de arreglar.*

## 14.2. Liburuaren industria

Liburuaren industriako solaskideek argi ikusten dute irudiaren gizartearen bizi garela, eta irudien kontsumoarekin lotutako ohiturek nekez egiten diotela mesede irakurketari. Ikus-entzunezkoek jarrera pasiboagoa eskatzen dutela, irakurketaren aldean. Eta irakurketak eskatzen duen esfortzua egiteko prestutasuna eta gogoia murriztuz doala.

Ohartarazi dute aisialdiko eskaintza digitala eta teknologikoa erakargarriagoa zaiela haur eta gaztetxoei. Eta eskaintza horrekin lotuta, batzuetan gehiegizkoa ere badela adierazi dute, saturazioa bat ematen dela.

### Argitaletxeak

*Oztopo nagusia, neure iritzi apalean, irudien mundua da. Haurrak eta gazteak oso ohituta daude informazio guztia irudi bidez jasotzen, eta beraz, uko egiten diote hizkiak deszifratuz irudiak eraikitzeke lanari*

*Gehiegizko eskaintza, baina kribatu barik. Eskaintza handia dago liburuan, filmetan, musikan... egunak ez du ematen denean ibiltzeko*

### Liburu-dendak

*El ocio tecnológico: internet, las redes sociales y las plataformas de tv (series y películas)*

*Hay poca ayuda y publicidad para fomentarla*

*Las opciones de ocio digital se han multiplicado y compiten por la atención de las generaciones mas jóvenes*

*Entre los niños, sin duda, las nuevas tecnologías: juegos de ordenador, "nintendos"... "maquinitas" en general.*

*Falta de tiempo y descoordinación entre los agentes implicados (Gobierno, Diputaciones, librerías, escuelas...)*

*Si se ayudara a pequeños comercios para que se pudiesen llevar a cabo actividades de fomento de lectura, La ayuda no tiene porqué ser económica, sino publicidad, etc*

*Los recursos digitales estan haciendo que la gente obtenga tanto a través de la lectura como de el visionado de imagenes y videos, mucha informacion en muy poco tiempo, por lo que la lectura esta quedando algo atras porque las imagense y videos transmiten mucho mas rapido y son una gran competencia*

*Agenda barrokoa dugula (esan nahi dut oso beteta dagoela) lagunak, lanak, jokuak, 7 denboraldiko serieak 4 egunetan ikusi behar izatea....*

### 14.3. Komunikabideak

Digitalizazioak eta haren ondoriozko aldaketa sozialek dakartzaten zailtasunak aitzakia gisa erabiltzen direla iradoki dute komunikabideetako solaskideetako batzuek, eta azpimarratu aldaketa horiek eta irakurzaletasunaren sustapena bateragarri egin behar direla. Askotan, irakurzaletasuna sustatzeko eredu eta formula zaharkituak erabiltzen direla, eta funtzionatzen ez badute ere, ez dela horiek egokitzeko ahaleginik egiten.

*Gaur egun baliabide multimediak gero eta gehiago dira. Gero eta bideo gehiago kontsumitzen dira, eta horrek, irakurketa oztopatzen dute. Dena dela, irakurketa sustatzeko baliabideak eta bestelako multimedia produktuak bateragarriak dira*

*Azkar irakurtzeko ohitura berria, twit bat, lerroburu bat, ...*

*Gazteen artean irakurketa asko galdu da, ikasketekin lotzen dutelako askok. Ikasketak uztean irakurketa galtzen da maiz*

*Eredu zeharkituak erabiltzea oztopo handi bat bezala ikusten dut*

### 14.4. Elkarreak

Azken urteetako aldaketa sozialek eragin duten beste zailtasun bati erreferentzia egin diote elkarreak: denbora faltari edo bizi-erritmoari. Nolanahi ere, neurri batean behintzat pertzepzio bat dela uste dute, irudipen bat, gehiegizko estimulazioak dakarrena. Lehentasun kontua dela, eta beste jarduera batzuetara bideratzen den denbora ez zaiola irakurketari edo irakurzaletasuna sustatzeari eskaintzen, ez delako hautu hori egiten.

Bizi-eritmo horrekin lotuta, aipatu dute ikastetxeetan irakurketaren abiadurari garrantzia handia eman izan zaiola, eta ez hainbeste ulermenari. Eta horrek azkar irakurtzen duten baina ulermen arazoak dituzten irakurleak sortu dituela.

#### Euskara elkarreak

*Euskarazko irakurle talde gutxi dago eta gehiago egon beharko lukete*

*Jendeak ez dauka (edo ez du hartzen) denbora nahikorik*

*Egungo bizitza eritmoa, haurrek kontzentratzeko dituzten zailtasunak, kontsumo azkarreko gehiegizko estimulazioa...*

*Denbora falta da edozein adin- tartetan aipatzen den arazo nagusienetarikoa, irakurketa lasai egin behar da, ulermena ahalbideratu behar du.*

*Eskola esparruan abiaduraren kontzeptuari larregizko garrantzia eman zaio tradizionalki eta irakuler azkarrak baina ezer gutxi ulertzen zutenak sortu ditugu.*



## Literaturaren arloko elkarteak

*Beharbada bai irakaslegoan zein guraso askorengan zaletasun falta*

## Bestelako elkarteak

*Hautu kontua da nere ustez, motibazioetatik abiatzen da eta oztoporik ez dut ikusten. Norberaren lehentasunetan dago kontua*

*El mayor obstáculo que veo es la proliferación de la cultura de series; la gente prefiere que le cuenten una historia sin hacer el "esfuerzo" de "ver" esa historia en su cabeza a través de un libro*

*Las herramientas digitales que les proporcionan una cantidad de estímulos en muy poco tiempo imposible de sustituirlos por un libro*

## **14.5. Hezkuntza**

### HEZKUNTZA

Baliabide digital eta teknologikoen eraginaz gainera, neurri batean haiekin lotuta dauden beste aldaketa eta joera sozial batzuei ere erreferentzia egin diete: denbora faltari, beti presaka ibiltzeari, eduki arinak eta esfortzu handiak eskatzen ez dituztenak nahiago izateari...

### Haur Hezkuntza

*Denbora. Gaur egun bizimoduak eskatzen digu presaka ibiltzea. Oso zaila da irakurtzeko astirik izatea*

*El acceso a juegos muy visuales a partir de muy corta edad, se acostumbra a ver más que a leer*

*La sociedad en general. Los programas televisivos*

### Lehen Hezkuntza

*Si, la televisión e Internet. El alumnado y las familias cada vez ven más la televisión y utilizan más internet*

*La falta de formación general de los docentes a este respecto, así como de los padres y de las sociedad en general y, por otro lado, el mayor obstáculo al que debe hacer frente considero que consiste en cambiar los hábitos tan fuertemente arraigados en nuestra sociedad*

*Denbora falta daukagun curriculum osoa eman ahal izateko. Irakasleok tresnak ere behar ditugu irakurzaletasuna bultzatzeko, askotan, denbora galtzea dirudi batzuentzat*

*Sustapen honek denbora behar du, denbora eta jarraipena. Irakurketen aukeraketa, zaila da gustuko duten bat aurkitzea. Motibazioa piztea. Familien inplikazioa.*

*Gaur egun ganoraz idatzi eta irakurtzeari ez zaio lehen besteko garrantzirik ematen eta, ondorioz, zaila izango da biharko egunean irakuzaletasuna hedatzerik, ikasle gero eta gehiagok zailtasunak izango dituztelako biharko egunean testuak errez irakurri eta ulertzeko*

### Bigarren Hezkuntza

*Zailtasunak dituzten ikasleekin , ez zaie gustatzen logikoa den bezala , horrelako kasuetan beste baliabideak bilatu behar dira irakurketa maila handitzeko*

*Sí, falta de implicación de los departamentos de educación y como resultado de ello falta de recursos económicos*

*Falta de tiempo y multitud de oferta de entretenimiento*

*Bai. Ohitura falta, etxeko giroak ez laguntzea, ereduak ez eskaintzea (gidari falta), denbora gehiegi ematea bideojokoetan eta ikusentzunezko jardueretan, gizarte azalekoa, topiko faltsuak, hizkuntza maila eskasa,..*

*El mayor obstáculo puede ser la competencia de los medios tecnológicos, que resultan más atractivos al ser más inmediatos y exigir menos intervención intelectual personal. Por otra parte, no todos los agentes educativos participan del fomento de la lectura, por lo que este queda minimizado cuando se realiza.*



## C. Ondorioak

## Ikerketaren aurkezpena, irismena eta metodologia

### Ikerketaren helburua

- Ikerketa honen helburu nagusia EAEko eragile ezberdinek irakurketa ludikoa sustatzeko 2019an aurrera eramán dituzten programak eta ekintzak identifikatu eta horien analisisa egitea da,

### Irakurzaletasunaren sustapenaren kontzeptua

- Beharrezkoa ikusi da "irakurzaletasunaren sustapena" kontzeptuaren definizio bat egitea, informazio bilketa ahalik eta modu homogéneonean egiten dela bermatzeko.
- Lana martxan jarri aurretik irakurzaletasuna sustatzeko ekintza, jarduera edo plangintza mota ezberdinen sailkapen edo taldekatze bat egin da: AZOKAK ETA JAIALDIAK, SARIKETA, AUTOREAK, LIBURUEN PROMOZIOA, IRAKURKETA SAIOAK, ORIENTAZIOA, TEKNOLOGIA BERRIAK, HEDABIDEAK, BISITAK.

### Ikerketaren irismena

- Irakurketa ludikoa sustatzeko EAEko programen identifikazio eta analisisirako unibertsoa bi mailatan egituratu da: errolda bidez ikerketaren unibertsoan sartu diren eragileak batetik, eta laginketa bidez sartu direnak, bestetik.
- Lana hasi aurretik ikerketan parte hartu duten eragileen sailkapen bat egin da sektore edo jarduera eremuaren arabera: LIBURUTEGIAK, HEZKUNTZA, FAMILIA, LIBURUAREN INDUSTRIA, HEDABIDEAK, ELKARTEAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK, OSASUN SISTEMA PUBLIKOAK

### Metodologia

- Metodologiaren mix bat erabili da azterketan: batetik planteamendu kuantitatibo izan du azterketak (ekintzen inguruko aldagaien deskribapen kuantitatiboa egin da). Jasotako erantzunen irakurketan sakontzeko asmoz azterketa kualitatiboa ere burutu da eta garrantzia eman zaio.
- Aplikaturako metodologiak irakurketa sustatzeko ekintza bakoitzaren azterketa indibidualizatua bermatu du.
- Eragileengandik bi mailatako informazio jaso da: batetik, irakurzaletasuna sustatzera ekintzak bideratzen dituzten eragileei buruzko informazioa eta bestetik, erakunde horiek irakurzaletasuna sustatzera bideratu dituzten ekintza eta jardueren ingurukoa. Horretarako galdetegi egituratuak erabili dira.

- Landa lana bi fasetan ipini da martxan: lehenengo fasea 2020ko ekainean ipini zen martxan eta bertan Hezkuntza sektorea ez beste guztiak sartu dira landa lanean; bigarren fasea 2020ko irailean ipini zen martxan (Hezkuntza sektoreko eragileekin).
- Hezkuntza sektorean, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeen kasuan lagin bat erabili denez, lagineko eragile titular batek erantzuteari uko egin dion kasuan eragile hori beste batengatik ordeztu da. Hasiera batean planteatzen zen lagina 450 ikastetxekoa zen. Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzaren bat antolatzen duen ikastetxe kopuru hori bermatzeko, guztira 591 ikastetxetara jo behar izan da (442 titular eta 149 ordezko).
- Informazio kualitatiboaren azterketa: galdera kualitatiboen bidez jasotako informazio kualitatiboa zein landa lanean zehar eragileengandik jasotako informazio kualitatiboaren azterketa eta egituratzea bat burutu da.
- Datu kuantitatiboaren ustiapena: datuen azterketa kuantitatiborako estatistika deskribatzailea erabili da: maiztasun absolutuak, erlatiboak eta aldagaien gurutzaketak. Gurutzaketarako erabili diren aldagaiak: lurraldea, udalerrri tamaina, sektorea, azpisektorea eta ekintzaren sailkapena.
- Irakurketa ludikoa sustatzeko programan azterketari buruzko txostena: txosten hau bi atal nagusitan dago egituratuta: Irakurketa ludikoa sustatzeko programen azterketa batetik, eta irakurketa ludikoaren sustapenaren azterketa kualitatiboa.

## Irakurketa ludikoa sustatzeko programen azterketa kuantitatiboa

### Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileen azterketa

#### Ikerketako unibertsoa

- Irakurketa ludikoa sustatzeko programen edo ekintzen azterketa honetara eraikitako unibertsoa 1.513 eragilek osatzen dute. Horietatik 923 eragile errolda bidez sartu dira unibertsoan eta 590 laginketa bidez.
- Unibertsoaren sektorekako banaketari dagokionez, Hezkuntza sektorea nagusitzen da eragile kopuruari dagokionean: 671 eragile. Azpisektoreen arabera unibertsoa osatzen duten eragileak aztertuta, Hezkuntzaren kasuan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilerreko ikastetxeek osatzen dute multzo nagusia (590 eragile, unibertsoaren % 39) eta ondoren EAEko liburutegi publikoen sareko liburutegiak daude (235 eragile, unibertsoaren % 16).
- Beren egoitza nagusia Bizkaian duten eragileak nagusitzen dira: unibertsoa 708 eragileren egoitza lurralde horretan kokatzen da.

#### Ikerketan parte hartzea

- Ikerketa honetan parte hartzearen maila % 64koa izan da: parte hartu duten eragileak guztira 961 izan dira. Parte hartze mailarik altuena Hezkuntzan (% 78) eta Liburutegietan (% 77) eman da. Baxuena Elkarteetan (% 39) eta Hedabideetan (% 35).
  - 961 eragile horietatik erdia baino gehiago Hezkuntza sektorekoak direla (524 eragile, % 55); 208 eragile Liburutegien sektorekoak dira (% 22) eta 96 eragile Liburuaren industriaren sektorekoak (% 10).
  - 10etik ia 5 eragilek (458 eragile, % 48) Bizkaian du bere egoitza nagusia.
  - Eragileen egoitza nagusia kokatzen den udalerriaren tamainari dagokionez, zehaztu diren udalerrri tamainaren araberako multzoen artean eragileen banaketa nahiko orekatua da.
    - 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan: % 27
    - 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan: % 26
    - 20.000 biztanletik gorako udalerrietan: % 19
    - Hiriburuetan: % 28
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan egoitza duten eragileen pisua nabarmen altuagoa da Liburutegien sektorean (% 50).

### **Irakurketa sustatzeko ekintzak burutu dituzten eragileak**

- Eragileen % 44k antolatu du irakurketa sustatzeko ekintzaren bat 2019an (426 eragilek). Ekintzak antolatzen dituzten eragileen pisua altuagoa da Gipuzkoan (% 47) eta 5.000 biztanlez azpiko udalerrietan (% 52).
- Ekintzak antolatu dituzten eragile horiek Bizkaian (% 47) eta 5.000 biztanlez azpiko udalerrietan nagusitzen dira (% 32).
- Liburutegietan (% 74) eta Erakunde publikoetan (% 67) ekintzak burutu dituzten eragileen pisua batezbestekoa baino altuagoa da.
- Ekintzaren bat antolatu duten eragileak batez ere bi sektoretan sailkatzen dira: Hezkuntza eta Liburutegietan (bi sektoreen artean eragileen % 85 hartzen dute).
  - ▶ Ekintzaren bat antolatu duten Liburutegien erdia baino gehiago udalerririk txikienetan kokatzen dira; eta Araban kokatutakoak beste bi lurraldeetakoak baino askoz gutxiago dira (% 14 Araban).
  - ▶ Hezkuntza sektorean Bizkaian kokatutako ikastetxeak nagusitzen dira (% 54) eta udalerririk tamainaren araberako banaketa orekatua da. Bestelako irakaskuntza eskaintzen duten zentroetan (helduak, atzerritarrak...) irakurketa sustatzeko ekintzak burutzen dituzten eragileak proportzionalki gehiago dira (% 40 da Hezkuntzako batezbestekoa eta % 49 bestelako zentroetan).
  - ▶ Badirudi familia sektoreko elkarteetan ez dela ohikoena irakurketa sustatzeko ekintzak antolatzea (guraso elkarteek kasuan pentsa liteke ikastetxearen eskumena dela antolaketa hori). Parte hartu duten elkarteek % 10ak antolatu dituzten ekintza mota hauek.
  - ▶ Liburuaren industrian Bizkaian eta hiriburuetan dute nagusitasuna ekintzak antolatzen dituzten liburu-denda eta argitaletxeek. Dirudienez udalerririk handietako liburu-dendetan ohikoagoa da irakurketa sustatzeko ekintzen antolaketa. Udalerririk txikiagoetako liburu-denden izaera anitzagoak, espazio faltak, etab. mota honetako ekintzen antolaketa baldintzatu lezakeela dirudi.
  - ▶ Hedabide eta elkarteek kasuan Gipuzkoa eta udalerririk handienetan kokatzen diren eragileak nagusitzen dira irakurketa sustatzeko ekintzen antolaketan.

## **Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen mapa**

### **Antolatutako ekintza kopurua**

- Azterlanean 2019an antolatutako 1.436 ekintzari buruzko informazioa jaso da: batez beste 3,4 ekintza eragile bakoitzeko.
- Ekintza gehien antolatu diren lurraldea Bizkaia izan da eta jarraian Gipuzkoa. Araban dago eragileko batez besteko ekintza kopurua ez bada ere askoz baxuagoa (3,0 ekintza/eragile), guztirakoa bai, unibertsoko eragile kopurua ere baxuagoa baita lurralde horretan.
- Tamaina ertaineko udalerrietan antolatu da ekintza gehien eragile bakoitzeko (3,9 ekintza/eragile) eta 20.000tik beherako biztanleria duten udaletan kontzentratzen da ekintza kopuru altuena (ekintzen % 61).
- Liburutegien sektorea da batez beste ekintza gehien antolatu dituen sektorea: 4,9 ekintza eragile bakoitzak batez beste. Gainontzeko sektore guztiak batez besteko orokorraren azpian kokatzen dira. Liburutegiekin batera Hezkuntza sektorea da ekintza gehien biltzen dituen sektorea (ekintzen % 90 bi multzo horietan kokatzen dira).

### **Antolatutako ekintza motak**

- Irakurketa saioak dira nagusi 2019an antolatutako irakurketa sustatzeko ekintzen artean (% 51). Liburutegietan eta ikastetxeetan ekintza mota hauen ugaritasunak ekintza guztien artean mota honetakoek pisu handia izatea eragin du. Bigarren maila batean Autoreekin antolatutako ekintzak daude (% 15).

### **Ekintzen xede taldea: adinaren arabera**

- Ekintzen ia herena ez dago adin-talde bati zuzendua, hau da, publiko orokorrentzat antolatutako ekintza da (% 29). 414 ekintzetan zehaztu da zein adin-talderi zuzendua dagoen ekintza; oro har, adina zehaztu den ekintzen kasuan hurrei zuzendutako ekintzak nagusitzen dira:
  - Liburutegiak: ekintzen % 32 ez dago adin-talde bati zuzendua, publiko orokorrera baizik. Adin-tarte bati zuzenduta dauden ekintzen kasuan hurrei eta bereziki Lehen Hezkuntzako adineko hurrei (6 eta 11 urte artean) zuzendutako ekintzak dira. Ekintzen % 20 adin ezberdinetako helduei zuzentzen dira.
  - Hezkuntza: ikasleen artean ere Lehen Hezkuntza hurrei zuzendutako ekintzak nagusitzen dira (% 63).



#### **Ekintzen xede taldea: publiko espezifikoaren arabera**

- 10etik ia 6 ekintza publiko espezifiko bati zuzenduta daude (% 59). Adinarekin gertatu bezala, kasu honetan ere ekintzen gehiengoa eskola komunitatearen baitan ikasleei zuzendua dagoela ikusten da (% 69). Jarraian familiei zuzendutako ekintzak daude (% 22) eta hirugarren tokian (% 10) haurrei zuzendutakoak (eskola jardueraz kanpo).
- Liburutegietan familiei zuzendutako ekintzak dira nagusi; haurrei (eskola jardueraz kanpo) zuzendutakoak ere batez bestekoaren gainetik daude
- Elkarteen ekintzetan ere ikasleei zuzendutakoak nagusitzen badira ere, badaude helduei eta irakasleei zuzendutakoak ere.

#### **Ekintzen xede taldea: baztertze arriskuan dagoen taldearen arabera**

- Baztertze arriskuan dagoen talderen bati zuzendua dago ekintzen % 3. Xede talde hau duten ekintzak ugariagoak dira Liburutegien sektorean.
- Zein xede talderi zuzentzen diren aztertuta: etorkinak, aniztasun funtzionala duten pertsonak eta emakumeak nagusitzen dira.

#### **Ekintzen karakterizazioa: LIBURUTEGIAK**

- Ekintza kopuru altuena duen sektorea da: 747 ekintzari buruzko informazioa jaso da EAEko liburutegietatik; horien gehiengoa EAEko liburutegi publikoen sareko liburutegietan antolatu dira (% 95).
- Batez ere 20.000 biztanlez azpiko udalerrietan antolatu dira ekintzak. Eta lurraldeari dagokionez Bizkaia nagusitzen da eragile bakoitzak antolatutako ekintza kopuruari dagokionean.
- Nabarmenki Liburutegietan irakurketa saioen atalean sailkatutako ekintzak dira nagusi.

#### **Ekintzen karakterizazioa: HEZKUNTZA**

- Ekintza kopuruari erreparatuta bigarren kokatzen da Hezkuntza sektorea (548 ekintzari buruzko informazioa jaso da). HH, LH, DBH eta Batxilerra eskaintzen den ikastetxeetan antolatu da ekintzen gehiengoa (520 ekintza).
- Batez beste Gipuzkoako ikastetxeetan antolatu den eragileko ekintza kopurua altuagoa da. Udalerri tamainari dagokionez, joera orokorraren kontrara, hiriburuetako ikastetxeetan altuagoa da batez beste antolatutako ekintza kopurua.
- Liburutegietan bezala ikastetxeetan ere irakurketa saioak nagusitu dira; bigarren ekintza mota ugariena Autoreena da.

#### **Ekintzen karakterizazioa: FAMILIA**

- Guraso elkarrengandik hiru ekintzari buruzko informazioa jaso da. Gipuzkoan ez da ekintzarik antolatu sektore honetan. Eta sariketa eta irakurketa saioak izan dira.

#### **Ekintzen karakterizazioa: LIBURUAREN INDUSTRIA**

- Jasotako ekintzen ia erdia Gipuzkoako liburu-dendetan antolatu dira (% 49). Gipuzkoan sektore honetan batez beste antolatutako ekintza kopurua (4,6) batezbesteko orokorraren gainetik kokatzen da. Udalerri tamainari dagokionean hiriburuetan antolatutako ekintzak dira nagusi (% 67).
- Liburuaren industriaren sektorean Autoreekin antolatutako ekintzak nagusitzen dira.

#### **Ekintzen karakterizazioa: HEDABIDEAK**

- Hedabideengandik 15 ekintzaren inguruko informazioa jaso da: 7 telebistakoak, 5 prentsa idatzikoak eta 3 irratikoak. Kokapenari dagokionez Gipuzkoa eta hiriburuan antolatutako ekintzak dira gehienak.

#### **Ekintzen karakterizazioa: HEDABIDEAK**

- Guztira 52 dira literaturaren, kulturaren, euskararen edota beste arloren baten alorreko elkarteek antolatutako ekintzak. Pentsa zitekeen moduan literaturaren alorreko elkarteetan batez beste antolatutako ekintza kopurua beste elkarte motetako baina altuagoa da (4,8 ekintza elkarteko).
- Elkarteen kasuan ere Gipuzkoan eta hiriburuan kokatutako elkarteak nagusitu dira ekintza horien antolaketan.
- Ekintza motari dagokionean, anitzagoa da eskaintza: irakurketa saioak eta sariketak nagusitzen badira ere, liburuen promozioa eta orientazioa helburu duten ekintzak kokatzen dira bigarren maila batean, eta horien atzetik, hedabideak, azokak eta jaialdiak eta autoreak multzoetan kokatutakoak daude.

#### **Ekintzen karakterizazioa: ERAKUNDE PUBLIKOAK**

- Erakunde publikoek antolatutako 16 ekintzaren informazioa jaso da.
- Irakurketa saioak eta autoreekin egindako ekintzak dira nagusi horien artean.

## Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzen antolaketa

### **Erakundeen arteko lankidetzak**

- Ekintzen % 23 antolatu da erakundeen arteko lankidetzan (zehazki 326 ekintza).
- Erakundeen arteko lankidetzak hori ohikoagoa da Elkarteen kasuan (sektore horretan ekintzen % 52 antolatu da lankidetzan).
- Lankidetzak horretan ze eragile dauden inplikaturak galdetuta: ikastetxeak, udalak eta liburutegiak arteko lankidetzak dira ohikoak. Bigarren maila batean daude Euskal Idazleen Elkartea (EIE), Galtzagorri Elkartea eta argitaletxe ezberdinak.
  - Liburutegiak: ekintzak lankidetzan ikastetxeekin antolatzen dituzte batik bat. (% 36); udalekin lankidetzan antolatzea ere ohikoa da.
  - Ikastetxeak: bi eragile nagusitzen dira lankidetzarako: Euskal Idazleen Elkartea (EIE) eta liburutegiak lankidetzak.
  - Elkartek: batez ere administrazio publikoarekin (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak).

### **Pertsonal kontratazioa**

- 442 ekintzatan pertsonaren bat kontratatu da ekintza aurrera eramateko (% 31): Elkartean, Liburutegietan eta Erakunde Publikoetan pertsona kontratazioa batez bestekoaren gainetik kokatzen da. Irakurketa saioetan eta Autoreekin zerikusia duten ekintzetan ere pertsonal kontratazioa batez bestekoaren gainetik dago.
- Zenbat pertsona kontratatu diren galdetuta, gehienez (% 66) kontratatutako pertsona bakarra izan da.

## **Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzak ikuspuntu ekonomikotik**

### **Ekintzen aurrekontua**

- Ekintza guztien aurrekontu bateratua 3 milioi eurokoa izan da; ekintzako batez besteko aurrekontua berriz 3.175 eurokoa (ekintzen % 66ak emandako informazioan oinarritutako datua da)
- Erakunde publikoak, Hedabideak eta Elkarteak batez beste aurrekonturik altueneko ekintzak dituzten sektoreak dira. Liburuaren industriako ekintzak ere batez besteko aurrekontuaren gainetik daude.

### **Ekintzen finantziazioa**

- Jasotako ekintzen % 29tan adierazi da kanpo finantziazioa jasotzen dela ekintza burutzeko. Kanpo finantziazio horren zenbatekoa guztira 740 mila eurokoa izan da. Elkarteen sektorean ohikoagoa da ekintzak burutzeko finantziazioa jasotzea (% 81).
- Erakunde finantzatzaile nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Udalak eta Foru Aldundiak dira.

### **Diru-sarrera propioak**

- Ekintzen %2k izan dituzte diru-sarrera propioak eta guztira 361 mila euro jaso da ekintza horietan diru-sarrera propio bidez.

### **Autofinanziazio-maila**

- EAEko irakurketa ludikoa sustatzeko antolatzen diren ekintzen autofinanziazio-maila % 82koa da.
- Autofinanziazio-maila % 40ra jaisten da Elkarteen sektorean; sektore honetako eragileek irakurketa sustatzeko ekintzak antolatzeko kanpo eragileen laguntza (finantziazioa) beharrezkoa dute, alegia.

## **Irakurketa ludikoa sustatzeko ekintzetan parte hartzea**

- Irakurketa ludikoa sustatzeko 2019an EAEn antolatutako ekintzek guztira 285 mila parte hartzaile izan dituzte. Antolatutako ekintza bakoitzeko parte hartzaile kopurua 301 pertsonakoa izan da.

## **Irakurketa ludikoa sustapenaren azterketa kualitatiboaren ondorio nagusiak**

### Irakurzaletasunaren definizioa

#### **Hautu pertsonala eta kontzientea**

Irakurzaletasunaz ari garenean, norberaren erabakiz, erabaki kontziente batez, euskarri eta genero ezberdinetako testuak irakurtzeaz ari gara, irakurketak berez eragiten dituen plazerra edo gozamena bilatuz horrekin. Eskolan agindutako irakurketaz edo ikasketekin edo lanarekin lotutakoez aparteko irakurketaz, betebeharrarekin lotutakoa ez den irakurketaz, alegia.

#### **Irakurketa-autonomia behar-beharrezkoa da**

Irakurketaz gozatzeri iristeko ezinbestekoa da irakurketa-autonomia eskuratzea, testuen ulermen-maila egoki bat eta gutxieneko irakurketa-abiadura bat edukitzea. Autonomia hori lortzeko, prozesu bat behar da, eta prozesu horretan kokatzen da irakurzaletasunaren sustapena.

#### **Asko du transmisioetik**

Irakurzaletasuna, jarduera ludiko eta entretenigarri gisa, transmititu egin daiteke. Horrela bizi duenak, irakurketarekin gozatzen duenak, bere ingurukoei "kutsatu" diezaieke har hori. Alde horretatik, etxean bertan has daiteke irakurzaletasunaren transmisioa, familia giroan. Nolanahi ere, beste hainbat eragilek parte hartzen dute pertsonaren eta irakurketaren arteko harremanean, espazio eta une ezberdinetan.

#### **Onurak ugariak dira**

Irakurle izateak hainbat onura dakartzio pertsonari, eremu ezberdinetan. Garapen kognitibo eta linguistikorako; jakinduria, ezagutza, informazioa eta kultura jasotzeko; kontzentrazioa, hausnarketa, irudimena eta sormena lantzeko; jarrera enpatikoa eta kritikoa garatzeko. Azken horiek gizartearentzako onura gisa ere uler daitezke, gainera.

## Irakurzaletasunaren sustapena

### **Ez du mugarik, lehentasunak bai**

Irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak ez luke mugarik eduki behar: edozein genero, arraza, erlijio, adin edo maila sozialetako herritarrei zuzendu beharko litzaieke. Nolanahi ere, kolektibo guztiek irakurketara sarbidea eduki behar luketelako, hori bermatu ahal izateko, arreta berezia eskaini beharko litzaieke horietako batzuei, talde zaurgarrienei: etorkinak edo irakurtzeko zailtasunak eragiten dizkieten desgaitasunak dituzten pertsonak, esate baterako.

Adinari dagokionez, hurrekin eta gaztetxoekin lotzen da, nagusiki, irakurzaletasunaren sustapena. Logikoa da, garai horretan finkatzen direlako etorkizuneko irakurlearen oinarriak. Alde horretatik, haiek dira eta izan behar dira irakurzaletasuna sustatzeko jardueren hartzaile nagusi. Nolanahi ere, beste muturra kontuan hartzea ere inportantea da. Izan ere, adinekoentzat, narriadura kognitiboari balazta jartzeko edo bakardadeari aurre egiteko ere balio handia du irakurketak.

### **Xede-taldea finkatzearen garrantzia**

Irakurzaletasunaren sustapena unibertsala izateak eta mugarik ez edukitzeak ez du esan nahi helburu horrekin proposatzen diren ekintza guztiak orokorrak izan behar direnik. Areago, xede-taldea finkatzeak eraginkorrago egin dezake ekintza. Betiere, xede-talde horren beharren, ezaugarrien eta lehentasunen arabera prestatzen eta egokitzen bada.

## Eragile nagusiak

### **Familia**

Irakurzaletasuna sustatzeko ardura duen lehen eragilea familia da. Etxeko transmisio hori eginez, irakurketarekiko grina transmitituz eta eredu emanenez, zimenduak jar ditzakeena. Nolanahi ere, ardura horri erantzuteko eta bere ekarpena gauzatzeko, babesa oso lagungarri gerta dakioko familiar. Alde horretatik, irakurzaletasuna sustatzeko ekimenen hartzaile ere izan daiteke, gero transmisore izatea errazteko.

### **Eskola**

Eskolaren rola ere garrantzitsua da irakurzaletasunaren sustapenean, adin txikikoen heziketan duen ardurarekin lotuta. Nolanahi ere, curriculum-aren eskakizunak bete beharrak eragiten dituen estuasunez gain, beste zailtasun handi bati aurre egin behar izaten dio: neska-mutilek irakurketa eskolarekin eta betebeharrarekin lotzeak dakarren arriskua, plazerrez irakurriko duten irakurleak sortzeko helburuari lotuta.

## **Liburutegiak**

Liburutegiek euren egiteko nagusien artean dute irakurzaletasuna sustatzea. Esparru naturala da beraiantzat. Liburutegiak eskaintzen dituen ohiko zerbitzuen bitartez egiten da, eta liburutegiak berak antolatzen dituen edo elkarlanean egiten dituen ekintza iraunkor edo puntualen bitartez ere bai. Liburutegiko erabiltzaileak direnak eta erabiltzaile ez direnak ere sartzen dira ekintza horien xede-taldeetan. Irakurle berriak sortzea bezala, irakurle direnen sozializazioa ere izaten dute helburu, liburutegietatik antolatzen diren ekintzek.

## **Liburuaren industria**

Liburuaren industria ere eragile aktiboa da irakurzaletasunaren sustapenean. Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak antolatzen dituzte argitaletxeek eta liburu-dendek, edo beste eragile batzuekin elkarlanean aritzen dira zeregin horretan. Baina kasu honetan, industriaren interes komertzial eta enpresarialak ere sartzen dira jokoan. Hedabide pribatuekin ere gertatzen da hori, nahiz eta kasu horretan, ez duten horren modu aktiboan eragiten. Zeharkako eragile kontsidera genitzake komunikabideak.

## **Erakunde publikoak**

Erakunde publikoen ardura da kulturarekiko sarbidea edukitzeko eskubidea bermatzea gizarte osoari. Horregatik, irakurzaletasuna sustatzen diharduten beste eragileei babes, baliabideak eta tresnak eskaintzea dagokie.

## **Ezaugarriak**

### **Giro lasaia eta atsegina**

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzek gune eta espazio lasaia behar dute, eroso eta atsegina.

### **Arina eta dinamikoa**

Oro har, arinak eta dinamikook diren ekintzak eraginkorragoak izaten dira. Xede-taldea kontuan hartu behar da, betiere.

### **Parte-hartzailea**

Entzule pasibo izan beharrean, ekintzako parte-hartzaile aktibo bihurtu behar dira herritarrak, haiek nahi izanez gero, betiere, inor derrigortu gabe. Horretarako, egokiagoak izaten dira talde txikiak.

### **Boluntarioa**

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzetan parte-hartzea boluntarioa izan behar da, ez derrigorrezkoa. Ez da betebehar modura planteatu behar.

### **Integratzailea**

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak integratzaileak izan behar dira, ikuspuntu ezberdinetatik. Alde batetik, gizarteko sektore eta kolektibo ezberdinetara iristeko gai izan behar dira.

Baina horrez gain, elitismoa saihestu behar dute, maila intelektual eta ezagutza literario ezberdinetako herritarrak erakartzeko. Gertutasunak, idazleekiko harreman zuzena edukitzeak, adibidez, xede horretan lagundu dezake.

### **Jarraitua**

Jarraitasun bat behar dute irakurzaletasuna sustatzeko ekintzek. Iraunkorrak izan edo programazio eta plangintza batean txertatuta egon behar dira.

### **Entretanimendu hutsaz haragokoa**

Irakurketa bera izan behar da ekintzen erdigune, testuak eduki behar du zentraltasuna. Ez dira entretanimendurako aitzakia hutsa.

### **Elkarlanean antolatua**

Kolaborazioan, eragile ezberdinen arteko elkarlanean antolatua izateak balio handia ematen dio ekintzari.

### **Neugarria eta baloragarria**

Planteatzen diren ekintzen arrakasta eta eraginkortasuna neurtzeko metodologiak landu behar dira, egokitzapenak egin ahal izateko.



## Arduradunak

### **Esparru publikoan**

Irakurzaletasuna sustatzearen ardura nagusia administrazio publikoari dagokio, nagusiki, hezkuntzaren eta liburutegi publikoen sarearen bitartez. Bestalde, irakurzaletasunaren sustapenean eragin dezaketen beste eragileei babes, baliabideak eta tresnak eskaintzea ere badagokie, nagusiki familiei —liburuaren industriari, komunikabideei eta elkarteei ere bai, besteak beste—.

### **Esparru pribatuan**

Irakurzaletasunaren sustatzaile eraginkorrenak familiak dira, etxeko giroan egiten den transmisioaren bitartez. Eskolaren lana edo liburutegien, elkarteek eta bestelako eragileen jarduerak osagarri egokiak izan daitezke, baina oinarrizko zimendua familiek jarri ohi dute.

## Hartzaileak

### **Haurrak eta gaztetxoak**

Hurrekin eta gaztetxoekin lotzen da, bereziki, irakurzaletasunaren sustapena. Garapen eta ikasketa prozesuan dauden aldetik, irakurketaren bidez ezagutzak bereganatzen dituzte, eta hausnarketa gaitasuna garatzen dute. Irakurzaletasuna txiki-txikitatik sustatzeko, familiak eurak izan behar dira jardueren hartzaile.

Gaztetxoei dagokienez, 10-12 urte artean kokatzen da garai kritikoa. Ordura arte, eskolak funtzio bat betetzen du, nagusiki irakurketa-autonomia lantzearekin lotuta. Baina irakurtzeko grina barneratu ez duten neska-mutil askok irakurle izateari uzten diote orduan.

### **Adinekoak**

Adinekoak ere lehentasunezko hartzailetzat hartu dituzte, irakurketak gaixotasun neurodegeneratiboak ekiditeko, kontzentrazio gaitasunari eusteko edo bakardadeari aurre egiteko tresna gisa duen balioagatik.

### **Kolektibo zaurgarriak**

Ezgaitasun fisiko edo kognitiboak dituztelako edo bazterketa edo ezberdintasun sozialak jasaten dituztelako zailtasunak dituzten kolektiboek irakurketa erraztea ere lehentasunezko zat jotzen da.

## Irakurzaletasunaren bilakaera

### Alde positiboa

- Irakurzaletasuna sustatzeko moduak, horretarako baliabideak eta tresnak asko ugartu dira, bereziki teknologia berrien bitartez.
- Produkzioa handitzen ari da, baita hizkuntza gutxituetan ere, tartean, euskaraz.

### Alde negatiboa

- Bilakaera modu desorekatuan gertatu da, biztanleriaren zati batek baliatu baititu, batez ere, irakurzaletasunarekin lotutako aukera berriak. Hainbat kolektibo atzean geratu dira, alde horretatik. Irakurle direnen eta irakurle ez direnen arteko arrakala handitzen ari da.
- Irakurtzeko modua aldatu da: asko irakurtzen da, baina azkar, patxadarik eta hausnarketarik gabe. "Kontsumo" irakurketa egiten da.
- Bisualagoak baina pasiboagoak diren beste aisialdi-aukera batzuk gailentzen ari dira, irakurketaren ordez.

## Baliabide digitalen inguruan

### Onurak

- E-book edo audioliburuaren erabilgarritasuna azpimarratzen dute, adibidez, tipografia txikiko liburuak irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat.

### Mehatxuak

- Irakurketarekin lotutako baliabideen sarbide eskasa gizartean.
- Ikus-entzunezkoen nagusitasuna eremu digitalean.
- Legez kanpoko deskargak, liburu digitalen esparruan.

## Zailtasunak eta oztopoak

### **Irudiaren gizartea**

Ikus-entzunezkoak nagusi dira gaur egungo ohitura sozialetan. Irudian eta soinuan oinarritutako aisialdiko eskaintza askoz ere erakargarriagoa gertatzen da, oro har. Ohitura horiek, gainera, aldaketa ekarri dute irakurtzeko moduan berean: irakurketa azkarragoa eta sakontasunik gabekoa egiten da.

### **Agendaren saturazioa eta bizi-erritmoa**

Aisialdiko aukera zabalak eta gurasoen lan-egoerek neska-mutilen agenda eskolaz kanpoko jardueraz betea egotea eragiten dute. Horrek irakurzaletasunaren sustapena konplikatu egiten du, bai familientzat, baita xede horrekin jarduerak antolatzen dituzten eragileentzat ere. Aldaketa sozialen beste eraginetako bat da denbora faltaren pertzepzioa, beti presaka ibiltzearena. Gehiegizko saturazio batek eragindako sentrazioa izan daiteke.

### **Egokitzeko ahaleginik eza**

Sarritan irakurzaletasuna sustatzeko eredu eta formula zaharkituak erabiltzen direla eta funtzionatzen ez dutela onartzen bada ere, ez da horiek egokitzeko ahalegin handirik egiten, ziurrenik, ez delako jakiten aldaketa horiek nora bideratu.